

kerol ... eta!
Kitto!
2018-1-12 1041 zkia.



Odei Jainaga

**Gero eta urrutirago,
orduan eta gertuago**


ORAIN DUZU AUKERA!

www.aek.eus

matrikula zabalik

aek

Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 eibar@aek.eus



CAMBRIDGE ENGLISH Language Assessment

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

MARTXOKO DEIALDIA
AZTERKETAK Eibarren, Arrasaten eta Durangon

MATRIKULAK
Urtarrilaren 9tik 26ra

AZTERKETA DATA

PET	AZTERKETA OSOA	Martxoak 17 (larunbata)
FCE FS	AZTERKETA OSOA	Martxoak 17 (larunbata)
CAE	AZTERKETA OSOA	Martxoak 17 (larunbata)

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	DEBA:	Akabi	943 19 16 79
	Idiomaster	943 79 07 84		North Street English	652 44 86 46
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53	DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
BILBO:	Capital Languages	94 445 73 04	MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
EIBAR:	Link Idiomas	943 20 39 59	MARKINA:	Chatterbox	94 616 96 39
	Target	943 20 01 08		Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
OÑATI:	Sounds Great	943 78 20 91	MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58



LAN|BI

Customized machines

www.lanbi.com

Makina espezialen LAN-BI S.A enpresak, automozioeko esekidura eta direkzio sistemen diseinu, fabrikazio, hornikuntza eta mantenuan aitzindari internazionala denak, LAN TALDERA HONAKO PERFIL HAUEK GEHITU NAHI DITU.

- PLC/robotika teknikaria
- Ordenagailuko programatzailea/analista
- Sistema informatikoko mantenua
- Automatizazio instalatzailea
- Muntatzaile ajustatzailea
- CNC makinaren prestatzailea

Bezeroarenganako orientazioa eta taldean lan egiteko gaitasuna duten pertsonak bilatzen ditugu. Lan esperientzia eta hizkuntzen jakintza baloratuko da, eta baita bidaiatzeko aukera ere.

Enpresa aitzindari batean integrazioa eskaintzen da, lanbide-garapen eskaintza zabalarekin eta aurkeztutako kurrikulumaren araberako ordainsariarekin. Hautagaiek beraien datuak bidali ditzakete, interesatuta dauden perfilari erreferentzia eginez, rrhh@lanbi.com helbide elektronikora.

Konfidentzialtasun osoa bermatzen da.

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Wang Conexion

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Ideia bat defendatzeko modua al da hau? –

Lehenik eta behin, argi laga nahi dogu egunero-koan emakumeok bizi behar izaten doguzen jarra-
ra matxistak ez jakuzela onargarriak iruditzen. Are
gehiago, gutako askok jarrera horiei aurre egiten
dotseguz egunero.

Hori argi laga ostean, gertatutakoa azaldu beha-
rra daukagu. Aurreko ostegunean, abenduak 28,
gure etxeetako atarian "Guk ez dugu arazorik ka-
leekin, gure arazoa erasotzaileak dira" esaten
zeban pintada agertu zan, Eibarko Txikito kaleko

6. atarian. Ez jaku iruditzen ideia bat defendatzeko
modurik onena danik; izan ere, gure eraikineko fa-
xada berritu berria dago eta, hainbeste esfortzu-
rekin ordaindutako obra batean, halako pintadak
egiteak eraikinaren itxura guztiz zikindu dau.

Ez jaku axola zehazki zeinek egin dabenean; bene-
tan nahi doguna da errudunak pentsatzea eginda-
koa bidezkoa dan, ideia bat defendatzeko besteen
eskubideak zapaldu baititu.

Eibarko Txikito, 6-ko bizilagunak

– Ikerren lagunaren partetik –

Kaixo. Hilebete darama gure lagun Iker Rokan-
diok kartzelan. Leku bakarti horretan gure berota-
suna jasotzen jarraitzeko, gutunak bidaltzera gon-
bidatzen ditugu eibartar guztiak.

Ondokoa da bertako helbidea: Iker Rocandio /
Centro Penitenciario de Araba / Portillo San Miguel
nº 1. / Carretera N-1, Km. 340, 01230

Gainera, Amaia eta Ikerri babes emateko anto-
latzen diren ekintzei eta euren egoerari buruzko in-
formazioa jasotzeko webgunea martxan dagoela
gogorazi nahi dugu: amaia-iker.eus

Eskerrik asko eta anima zaitzete idaztera!

Ikerren lagunak

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAIÑA.- Minik gabeko negarra. Umeekin erabiltzen da eta normalean pluralean.

"Bizarra arpegixan eta umien moduan maiñetan".

MAIÑAK EGIN.- Arrazoirik gabe negar egin. Normalean ume berbetan erabiltzen da.

"Ez egizu maiñarik egin, txikitxo, emongo detsut-eta".

astean esanak

"Euskal Herriko orain arteko ahaleginek ez badute aurrera
egin, epaileekin baino fiskal okerrekin topo egin dugulako da.
Nahi dutena esango dute Justiziar buruz, baina gaur egun
aparatu guztia dago estatuaren menpe Fiskaltzaren bidez.
Gasteizko Udalak, Arabako Batzar Nagusiek eta diputazioak
iaz jarri zuten beren kereila Martxoaren 3ko gertakizunei
buruz. Fiskaltzaren txostenean betiko bi arrazoiak ageri ziren:
'Delituek preskribatu dute eta Amnistia Legea hor dago'.
Horri helegitea jarri zioten, beraz, lurralde auzitegira joan zen.
Handik Auzitegi Konstituzionalera, eta hark ere berdin,
'erreferentzia konstituzionalik ez' zeukalako auziak. Marka!"

(JOSU IBARGUTXI, KRIMEN FRANKISTEN AURKA)

"Espero baino datu hobeak izan zituen iaz Interneteko .eus
domeinuak, %21 hazi baitzen. Guztira 7.700 domeinu daude
erregistratuta .eus bitartez. Hazkunde tasa hori gainerako
domeinuen baino 10 aldiz handiagoa da. 2020rako plan
estrategikoan helburutzat jarria
dute .eus Euskal Herriko

3. domeinua izatea, eta bidean doaz. Euskarari dagokionez,
.eus webguneen %91k euskarazko edukiak dituzte. Eta,
behin domeinua eskuratuta, %95ek berritu egiten dute"

(GARIKOITZ GOIKOETXEA, KAZETARIA)

"Niri gustatzen zait harmonia, kolorea eta bizipoza, baina uste
dut jakin behar dela entzuten harmoniarik gabeko kantuek
ere. Disonantziak, soinuak bere osotasunean; hor gordetzen
dira sekretu handiak. Askotan temetzen gara soinu politik
entzutera, eta askoz ere gauza gehiago dago, eta horietan
sakontzean ateratzen dira gauza interesgarriagoak"

(MIREN NARBAIZA, MUSIKARIA)

"Elvis Presley hil zenean, 1977an, rock-aren erregeak
munduan 180 bat *doble* izango zituen. 2000. urterako 185.000
zenbatu ziren. Ba, kurba esponenzial horri jarraituta,
2050erako munduko populazio guztia halakoek osatuko dute.
Zertarako ahaleginduko gara, orduan, Elvis klonatzen?"

(HELEN PILCHER, ZIENTZIALARIA ETA IDAZLEA)



UNAI ARTETXE

“Guay”

«Guay» izan da zu ezagutzea, hamaika bizipen elkarrekin pasa izana.

“Zelan aitzitza?” galdetu eta “guay” erantzun horrek zenbat sentimendu eta sentipen jasotzen zituen jakitea ez da erraza izan.

Gauza asko daudelako hitz horren atzetik. Eta, era berean, jarrera bat bakarra dagoelako.

Beti alai, beti irrifartsu. Beti besteei txantxaren bat edo beste egiteko desiran.

Bizitzaren une bakoitzarekin gozatzeko prest.

Gogoan dut txikitan kanaberak hartu eta Zumaiko itsasadarrean anaiari eta bioi arrantzan egiten erakusteko egin zenuen ahalegin bakoitza. Zure pazientzaren erdia izango banu...

Oroitzen naiz orain hilabete gutxi Iker eta Oihan zure birlobekin Otezuri alboko tabernan egindako oliba jana lasterketa. Hor egon zineten hirurok, zeinek oliba gehien azkarrago jango lehiatzen. Gure txikiak irabazi zuen, nola bestela!

Azken urteak Otezuriko egoitzan pasa dituzu, bertako mediku, erizain, laguntzaile, bolondres eta beste askorekin. Hauekin ere «guay» egon zara, primeran, eta seme-alabek, bilobek, birlobek eta bestelakoek osatzen dugun familia handiari beste hamaika senide gehitu zaizkio. Eskerrik asko zuei ere, Otezuriko familia osoari, aitzitxaren egunerokoa bikaina izaten laguntzeagatik.

Faltan botako zaitugu, aitzitza, ez izan zalantzarik, baina bizitzari barre egin eta txantxa mordo egingo dizkiogu, zuk nahiko zenukeen bezala. Eta, batez ere, zuk erakutsitako jarrerari helduko diogu.

«Guay» izan da zu ezagutzea, aitzitza.

Zabaldu dabe NAN eta Pasaportia egitteko bulegua udaletxian: hitzordua eskatzeko 060ra deitu bihar da

Eibarren NAN eta Pasaportia tramitatzeko bulegua atzoz gerotik martxan dago, bai-ña atiak jendia rendako zabaldu aurretik, eguaztenian inauguraziño ekitaldixa egin eben kazetarixendako. Bulegua udaletxeko beheko solairuan dago eta sartzeko atia patixuan daka. Hitzordua eskatzeko 060 telefono zenbakira deitu bihar da edo, bestela, internet bidez eskatzeko aukeria be badago, www.citapreviadnie.es helbidean. Agiri bixen inguruko informaziño guztia, bestalde, www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/dni helbidian eskuratu leike. Buleguan



jendiari harrera egitteko ordutegixa astelehetik barixakura bittartian, goizeko 08:00etatik 14:00xetara da.

Alfako bihariñak mobilizaziñuan segitzen dabe

Errege Egunaren bezperan Untzagan elkarretaratzia egin eta gero Alfako bihariñak zabaldutako idatzixan aditzera emondakuari jarraituta, urte barrixa 2017xa agurtu eben bezala, lanpostuen aldeko greba mugagabian hasi dabe. Horrekin batera, urteko lehen astian grebak izandako jarraipenaren



inguruko datuak emon zittuen, gauzak argitze aldera: enpresak berak egunero siñatutako aktak eskuan, aittatutako egunetan Alfa Precision Casting taillarrian bihariñan jardun dabenak %33'59 osatzen dabe. Alfa Precision Casting enpresaren likidaziñua abenduaren 27xan onartu eban epailliak eta bihariñak abenduaren 11an ekin zetsen greba mugagabiarri. Bixar arratsaldeko 17:30xetarako lpuua foball zelaixan alkarrataratzia deitu dabe.

Erregetako loterixaren bigarren sarixa Eibarren

Errebal kalian dagan Loterixa Administraziñuaren 2 zenbakixan Erregetako loterixaren bigarren sarixaren serie bat saldu eben, hamar dezimuen artian guztira 750.000 euro banatuta (75.000 euro dezimo baktzeko). Maite Jaka bertako arduradunaren berbetan, “*leihattillan baiño gehixago, sarixa 18.442 zenbakixa betidanik hartzen dabenen artian banatu da*”. Jakak 30 urte daroiaz Administraziñuan eta aurretik be banatu izan dau saririk Erregetako loterixarekin. 2006xan bosgarren sarixa jausi zan administraziño berian. Aurtengo sarixa oso banatuta egon da eta Valentzian, Andaluzian, Katalunian, Kanarietan, Madrillen, Murtzian edota Asturiasen saldu da.





Eibar Foball Taldeak eta taldiaren peñek bere dolumiñak bialdu zetsen Verdejoren famelixari.

Gasteizen emon zetsen azken agurra Debako muturrian hildako Diego Verdejori

Oin dala egun batzuk olatu batek uretara botata hil zan Diego Verdejo eibartarraren hilleta-elizkizunak Gasteizko La Esperanza elizan egin ziran aurreko astian, eguenian. 67 urteko eibartarra eta bere bikotia, 65 urteko Loli Kintana, Gasteizen bizi ziran eta, itsasbazarrian olatueri begira eguazentian, bapatian olatu batek harrapatu eta itsasora bota zittuan Mutrikuko lurretan baiña Debatik gertua-

go dagan Ondarbeltz aldameneko espi-goitik. Urtarrilaren 3an, arratsaldeko 16:45etan gertatu zan ezbeharra eta, gizon bat uretatik etarutzen ahalegindu bazan be, ez eban lortu. Diego Verdejo Eibar-Gasteiz peñako kidea zan, Sanandresak ospatzeko ekitaldixetan parte hartzen eban eta gaur egun be ezagunak zittuan hainbat eibartarrekin lotura izaten segitzen eban.



Urkon emon zetsen urte barrixari ongietorrixa eibartar askok

Urteroko moduan, urte barrixari ongietorrixa emoteko Urkora igo ziren eibartar asko urteko lehen egunian, goizeko eguraldi ona aprobetxauta. Tontorrian eteratako argazki honetan ondo ikusten dan moduan, haize bolada haundixak izan zittuen lagun. Halanda be, asko izan ziran betiko umore onez Urkora igotzera animatu ziranak. Urte barri on!

autuan

JARDUNALDIXA EIBAR COWORKING-EN

Maiatzian Datuen Babeserako erreglamendu barrixa sartuko dabe indarrian eta, enpresa eta autonomo askori eragingo detsela eta, gaixaren inguruko jardunaldixa antolatu dabe Eibar Coworking-en. Datorren asteko eguenian, 10:30xetatik 12:00xetara izango da saiaua, Eibarko Txikito kaleko 8. zenbakixan, Segurdades enpresako Eduard Domingoren eskutik. Pribatasunaren garapena, oin arteko legia, behin-betiko regulaziñua, autonomo eta enpresa txikixetako adibidiak eta beste hainbat landuko dittue. Izena emoteko eibarcoworking@gmail.com helbidera idatzi edo 688 734 292 telefonora deittu edo Whatsapppa bialdu.



ZOKKETAK

San Kristobalگو jai batzordekuak egindako zozketan ('El Niño') zenbaki sariduna 352 izan zan (ordezkuak 464 eta 27 dira). Irabazliak harategiko produktuekin osatutako lote bat jasoko dau. Eta Amañako jaxetako zozketia, barriz, martitzenian egin eban eta zenbaki sariduna 2.397 izan da.

MIGUEL ARTETXE ARANBURU

(2018ko urtarrilaren 2an hil zen, 90 urterekin)

*"ESKAINI DIGUZUN MAITASUNA GUREKIN
GERATZEN DA. Beti izango zaitugu gogoan".*

SENIDEEN IZENEAN, eskerrik asko hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.



IDURRE
IRIONDO

Alkartasun bazkarixa Aroari laguntzeko

Zazpi urtetan zihar egindako proben ostian, Coffin-Siris sindromia dakala diagnostikatu detse Aroa haur eibartarrari. Gaixotasun genetiko oso arrarua da eta estatu osuan pare bat kasu baino ez dago. Gaixotasunari aurre egin eta Aroari laguntzeko asmoz, Haize Aroa alkartiak bazkarixa egingo dau Eskozia La Brava lagunartearekin batera bixar, Eibar KE eta Atlético de Madriden arteko partiduaren aurretik. Ipuruako neurketa 18:30xetan hasiko da, baiña goizian goizetik antolatu dittue ekintzak: 10:00etan txosna zabalduko da Untzagan eta DJ Kurrok girotuko dau goiza. Pintxuak eta edarixak saltziaz gain, hainbat zozketa be egingo dira eta umiendako jolasak eta puzgarrixak be egongo dira. Bazkarixa, barriz, 15:00etan izango da. Eibar KE-k,



Udalak, Etxeberria Arkitektura Estudioak eta Isekin eta Amaña es la Kaña alkartiak be ekitaldixa babes-tu dabe.



Eurixak kabalgatia galarazi eban

Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregiak ezin izan eben kabalgatarik egin, kalejira hasteko orduan eurixa bota ahala eguan eta. Karroza, Eibarko Musika Bandako musikuak, Errege Magueri laguntzen kalejiran urtetzekuak ziran argidun tximeletak eta izarrak eta enparau guztiak preparauta egonda be, tarte batian eurixa geratu bihar zala emoten eban eta, horrekin animauta, azkar batian ipiñi ziran martxan danak, baiña Calbetonen sartu orduko atzera be txaparrada hasi zan eta, azkenian, umiei harre- ra egittera udaletxe barrura juan bihar izan ziran Erregiak.



Jaiotza artistikua euki dabe Azittaiñen jaixotan

Urteroko moduan, Azittaingo parrokixakuak hainbat meza berezirekin ospatu dittue Gabonak eta, horrekin batera, jaixak iraun daben bittartian Joseba Urriolabeitiak egindako jaiotza artistikua euki dabe elizan, nahi eban edozei- ñek ikusteko moduan.

Emon detse sarixa Gabonetako marrazki lehiaketako irabazliari

Gabonen harira KIA Naia Car enpresak eta El Corte Inglesak alka- rrekin antolatutako marrazki lehiaketia Elene Urigoitia, 12 urteko du- rangarra izan zan. Argazkixan irabazlia ikusi zeinkie, 200 euroko eros- keta-txartela El Corte Ingleseko Esteban Asensioren eskutik jasotzen.



Urriaren amaieran bete zuen urtea Eibarren martxan ipini zen Business Network International Armagin ekimenak. Hori ospatzeko asmoz, ekitaldi berezia egingo dute datorren asteko egunean, hilaren 18an, Coliseoan. Estatu Batuetan sortutako marketing eta erreferentziarako programa da BNI eta, enplegua eta aberastasuna sortzeko helburuarekin egiten du lan, *“beti ere eskuzabalak diren kideak bilduz taldean”*. Ideiak, kontaktuak, harreman sareak eta negoziorako erreferentziak partekatzeko aukera eskaintzen zaizkie euretako bakoitzari eta, elkarlan horri esker, taldeko kide guztiek etekinak handitzea lortu dezakete. Patricia Villarino da gaur egungo presidentea eta aukera aprobetxatu dugu berarekin izateko.



PATRICIA VILLARINO (BNI Armagin-eko presidentea):

“Bi milioi euro fakturatu ditugu azken urtean”

– Zelako ekitaldia prestatu duzue datorren egunerako? Zein asmo duzue?

Bada urtebete baino gehiago BNI Armagin-eko aurkezpen-ekitaldia burutu genuela Astelena frontoian eta tartean egin duguna kaleratzeko aprobetxatuko dugu eguna, beti ere ospakizun kutsua emanez. 07:00etan kafetxoaren tartea zabalduko dugu, 07:30etik 09:00ak arte gure bilera egingo dugu eta, horren amaieran, beste Networking bat egingo dugu. Ekitaldian gure egitasmoak dituen abantailak azpimarratuko ditugu, argi dagoelako merezi duela. Izango da sorpresarako tartea ere... Zeozer dinamikoa izan behar da.

– Noiztik zaude presidente karguan? Eta noiz arte? Zelako funtzioak dituzu taldean?

Irailetik naiz presidente, BNI Armagin-eko hirugarrena. Hasieran sei hilabeterako kargua bada ere, aukera dago beste sei hilabetera luzatzeko. Astero egiten dugun eguneko bilera eramaten dut eta, ardurua gehiago badut ere, arazo berezietarako lidergo-taldea dugu horrelakoei soluzioa emateko.

– Bilerak egiteko eguna, ordua eta funtzionamendua ez duzue aldatu, ezta?

Hasierako bera da. Eguenero 06:45etik aurrera biltzen gara El Corte Inglesean, horretarako laga diguten instalazioan. Kide guztiek derrigorrezkoa dute astero joatea, talde-dinamika sortzeko lagungarria izateaz gain, kideen arteko hartuemanetarako ere mesedegarria delako. Eta asteroko dinamika ere errepikatu egiten dugu: hasieran gure helburuak errepasatzen ditugu, gero taldekide bakoitzak bere burua aurkezten du eta zer nahi duen azaldu, eta amaieran taldearen helburuak eta ordura arte lortutakoak errepasatzen ditugu.

– Jakina, taldekide guztiek sektore edo jardura ezberdinetakoak zarete, ezta?

Bai, arlo bakoitzeko ordezkari bakarra dugu, elkarri konpetentziarik ez egiteko eta, behin taldea osatuta, kide guztiek elkarrekin jarduten dute beharrean, guztien mesederako. Hala ere, profesio-motaren arabera, sinergia-talde desberdinak ditugu, talde txikiagoen arteko loturak errazte bidean. Bost ditugu une honetan: enpresentzako zerbitzuak, eraikuntza, lege eta finantza arloko zerbitzuak, osasuna eta ongizatea eta, azkenik, marketing-a eta komunikazioa.

– Zuk zein arlotan egiten duzu lan?

Banco Mediolanum-etik nator eta Family Banker naiz. Finantza planifikazioan eta ondare kudeaketan dihardut, hau da, jendearen helburuak eta ametsak lortzeko nire bezeroen dirua kudeatzen dut.

– Krisia atzean laga dugula esango zenuke?

Nire ikuspuntutik, bai. Barne-produkzio gordina positiboa da, enpresa-etekinak gora doaz eta baita mundu mailako merkatua ere. Gurea IBEX-ak zeozer estankatu arren.

– Zuen emaitzak, baina, positiboak izan dira alde guztietatik begiratuta, ezta?

Bai. Urtebetean bi milioi euro fakturatzeko lortu dugu. Gure hurrengo helburua handiago da: bi milioi eta erdira heltzeko asmoa dugu. Gaur egun taldean 25 lagun gara eta denok denontzat funtzionatzen dugu. Azken hilabetean, gainera, lau berri sartu dira.

– Interesa duenak nora jo dezake?

Orrialdea dugu Facebook-en, Idurre Albizuk jarraitzen du gure zuzendari-aholkularia izaten, eta taldeko edozein dago prest laguntzeko. Gogoia izatea da funtsezkoa: lana eskatzen du, baina ematen duenak jasotzen du.

MARIA ETXEBERRIA CHAPARTEGUI "MIREN"

Gaspar Alvarez-en alarguna

- 2018ko urtarrilaren 6an hil zen, 94 urterekin -

“Zaila izango da zu berriro ez ikustea, baina bizi garen artean beti gogoan izango zaitugu”



BERE ALDEKO MEZA URTARRILAREN 14AN, DOMEKAN, EGINGO DUGU EGUERDIKO 12:00-ETAN, SAN PIO X ELIZAN.



Eibarko XXIII. KIROL SARIAK



2017 — abenduak — 31

Urtero lez, Gabon Zahar egunean Eibarko Kirol Sarien banaketa egin zen Coliseoan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako aukera hori aprobetxatu zen urte guztian zehar gure herriko kirol taldeek egiten duten lan nekaezina saritzeko.



Sari Berezia
ODEI JAINAGA



Euskera
PELOTA ESKOLA



Ibilbidea
EIBARKO URPEKOAK



Atletismoa
JULEN TERAN



Errugbia
GORKA MOYA



Eskubaloia
MIKEL ZABALA



Fitness
AITOR ALFONSO




Foballa
JULEN LOPEZ



Gimnasia Erritmikoa
IPURUAKO INFANTIL TALDEA: Maddi Teran, June Heredero, Indira del Pino, Lur Aranburu eta Enara Bilbao



Silbestrismoa
JOSE ANGEL AMESTI



Golfa
JUAN LUIS TUEROS



Herri Kirolak
ALKIDEBA



Hiru Txirlo
JOSEAN URKIA



Igeriketa
ANDER SALABERRIA



Judoa
HEGOI ESTEBAN



Karatea
JESUS CASTILLO



Mendia
EGOITZ ELDUAIEN



Pelota
MIKEL SARASUA



Saskibaloia
AITOR AZURMENDI



Tiro olimpikoa
BERNARDO PEREZ



Triatloia
IGOR ATXA



Txirrindularitza
ANDER GUTIERREZ



Wu-Shu
IÑIGO ARIZAGA



Xakea
ADRIAN MARTINIKORENA



Sustapena
DELTECO



Automobilismoa
GARIKOITZ RODRIGUEZ eta UNAI FLORES



Eskia
NAIA SAEZ eta ELENE GISASOLA



Waterpoloia
AROA PEÑA eta ERIKA SANTAMARIA

Nekez ahaztuko du Odei Jainagak 2017 urtea. Bere ibilbidean goranzko jauzi handiak eman ditu eta Espainiako xabalina txapeladuna bilakatu da, besteak beste. Baina kirolari eibartarrak gorago begiratzen du. Eibarko Kirol Sarien Sari Berezia jaso ostean, 80 metrotara jaurti nahi du xabalina eta Europako Txapelketan parte hartu nahi du aurten. Anbizio handiko kirolaria, xabalinaren historian toki bat egiteko gai ikusten du bere burua. Lana, behintzat, egingo du.

- Toki onean kokatu duzu Eibarko Kirol Sarien 2017ko Sari Berezia?

Etxeko sarreran daukat jarrita, aurkitu nuen lehen tokian (*barreak*).

- Hasi zara etxean sariak pilatzen?

...eta kitto!-k emandakoa izan da jaso dudana lehen saria egia esan. Badaukat besteren bat, baina ez atletismokoa. Domina batzuk nire gurasoen logelan dagoen egurrezko itsasontzi antzeko baten eskegita.

- Zein sentsazio utzi dizu 2017ak?

Oso urte ona izan da. Urtero hobetzen joan naiz eta beti iritsi da momentu bat gora egin behar izan dudana. Hor tratatuz gero, beherakada etorri zitekeen, baina nik gora egin dut. 69 metro jaurtitzetik 77 metro jaurtitzera pasa naiz eta kalitate handiko jauzia da hori, oso garrantzitsua. Orain beste jauzi bat ematea falta zait, 80 metrotik pasatzea eta, emanez gero, maila oso onera iritsiko naiz. 2017an 80 metro baino gehiagoko jaurtiketa egin nuen, baina baliogabea izan zen. Zuzena izan balitz, izugarria izango litzatekeen! Hurbil nagoela dakit eta baliogabeko jaurtiketa horrek konfiantza ematen dit helburu hori lortzeko.

- Eta 80 metro jaurti eta gero?

Profesional onenek 90 metrotik gora jaurtitzen dute, eta hori jauzi handia da. 80 metrotik gora finkatuko banintz, munduko elite mailan kokatuko nintzateke; eta 90tik gora jaurtiz gero, historiako onenen artean egongo nintzateke.

- Jauzi horiek emateko prest zaude?

Jakina! Beti prest!

- Azken urteotan izan duzun bilakaera handia izan da eta anbizio handiko erronkak dituzu aurretik. Nolabaiteko presioa sentitzen duzu orain?

Bai, asko. Lehen jolas moduan egiten nuen atletismoa. Unbera joan, entrenatu, jaitsi... zerbait egitearren nebilen atletismoan. Gero, 15-16 urte bitartean min hartuta egon



"80 metrotik pasatzea lortuko banu jendea ez litzateke harrituko"

nintzen eta adin berezia da, gizontzen hasten zarelako. Bi urte horietan ukondoa gaizki eduki nuen (beno, oraindik ere), ipurdi inguruan ere mina neukan eta ia ez nuen lehiatu. Ondorioz, kategoria bat galdu nuen. Bueltan, ordea, hobekuntza nabarmena somatu nuen bapatean. Nire marka 6 metrotan hobetu nuen bi urtetan ezer egin gabe egon ostean. Denboran aurrera egin ahala nire marka hobetzen joan nintzen eta 60 metroko muga ere gainditu nuen berehala. Espainiako txapelketara joango ez nintzela pentsatzetik, Mundialera joan nahi izatera pasa nintzen. Jauzi handia eman nuen denbora gutxian. Emaizta horiek ikusita, etorkizunean zerbait egin nezakeela pentsatzen hasi nintzen. Gorputza hartu dut, eta orain indar gehiago hartzea eta teknika hobetzea falta zait. Nire usteak betetzen joan dira eta gogor entrenatuz emaitzak irten zaizkit. Aurreko denboraldia da horren erakusle. Aur-

ten beste pauso bat eman behar dut eta hasi naiz lanean jada.

- Ezustean harrapatu zaituzte lortu dituzun emaitzek?

Sorpresa izan da. Jendeak 40 metro ingurura jaurtitzen du xabalina 15 urterekin eta ni ez nintzen heltzen. Bapatean, 16 urterekin 42 metrotara jaurti nuen eta normaltzat hartu ahal zen, baina poliki-poliki jendea gainditzen joan nintzen, markak hobetzen, eta eboluzio horri begira uste dut jendea ez litzatekeela harrituko 80 metrotik pasatzea lortuko banu. Bidea markatuta daukat, baina orain bidea egin behar da. Lesioek uzten badidate, helburuak lortu ditzakedala uste dut.

- Zein izan da hobekuntza horren gako?

Lehenik eta behin gaitasuna izan behar duzu, edonork ezin du jaurti nik jaurti dudana, baina nahiz eta gaitasunak eduki ez badituzu lantzen eta ez baduzu sufritzen, ezinez-

koa da. Dohaina eta esfortzua behar da, behin eta berriz ekitea.

- Gustura egiten duzu esfortzu hori?

Bai. Egun hauetan erdi gaixorik egon naiz eta, hala ere, gaur gimnasia joan naiz eta bakar bakarrik egon naiz bertan hiru orduz. Ez negoen oso animatuta, baina badakit zer lortu nahi dudan eta hori lortzeko lana egin behar dut.

- Teknika, indarra eta fisikoa lantzen dituzu. Eta burua?

Oraindik ez, baina uste dut landu behar dudala. laz nazioarteko txapelketetan huts egin nuen, batez ere txapelketa batean. Munduko onenaren aurka aritu nintzen lehian eta berari begira pasa nuen nire buruari begira baino denbora gehiago (barreak). Alde psikologikoa beste alderdiak bezain garrantzitsua da. Burugogorra ez bazara, hor konpon! Zentzu horretan tematia naiz. Jauzia emateko ordua heltzen denean hotza izan behar zara eta kalitatezko lana egin behar duzu. Ni oraindik ez naiz momentu horretara iritsi, baina 27 urte inguru dituztenen entrenamenduak ezberdinak dira.

- Bide luzea daukazu aurretik zure maila gorenera heltzeko?

Jaurtiketetan adinak ez du hainbeste eragiten, baina teknika guztia eta beharrezko indarra lortu arte denbora behar da. 28-30 urterekin teknika menperatu eta beharrezko indarra edukitzera heltzen dira xabalina jaurtitzailak. Gaur egun, 24-25 urteko bi jaurtitzaila on daude, baina orokorrean berandua go iristen da momentu gorena. Ni are gaz-

*Odei Jainaga
Eibarko Kirol
Sarietako
azken edizioko
protagonista
nagusiena
izan zen eta,
nola ez,
etxekoek ere
lagundu zioten
horrelako
egun berezian.*



teagoa naiz. Ea datorren urtean eurekin egoteko jauzia ematen dudan.

- Eibarko Kirol Sarien ekitaldian aipatu zenuen kirol askotan aritu zinela gazteagoa zinenen. Nola amaitu duzu xabalinan?

Igeriketa, Kung-Fu, Wu-Shu, fondoko eskia, futbola, esku pilotan eta eskubaloian aritu naiz. Igeriketa egiten nuenean hotz asko pasatzen nuen eta utzi egin nuen. Futbolean ere ez negoen oso gustura eta Mikel Oyarzabalek jokatzeko nire postuan gainera (barreak). Gero, Bolunburu Krosa ikusten negoen atletismoan apuntatzeko animatu ninduen amak eta probatzearen hasi nintzen. Orduko pentsaera ez zen gaur eguneko bezalakoa, jolastera joaten nintzen eta, sufritu behar bazen, ez zitzaidan gustatzen. Hasieran denetatik egiten nuen:

altuera-jauzia, luzera-jauzia, krosa, 150 eta 100 metroko lasterketak... Ez dakit azkenean zergatik aukeratu nuen xabalina. Gustukoa neukan eta, nahiz eta oso ona ez izan, nahiko ondo moldatzen nintzen.

- Aukeraketarekin asmatu duzula dirudi.

Bai, beste modalitate bat aukeratu ezkerrean ez dakit zer gertatuko litzatekeen.

- Amak aholkuak ematen dizkizu?

Ez. Xabalina-jaurtiketan aritu zen, berak animatu ninduen atletismoan, baina hortik aurrera nire bidea egiten utzi dit. Aitak gauza gehiago esaten dizkit amak baino, eta berak ez dauka xabalinarekin zerikusirik (barreak). Ama ona izan zen xabalinarekin, baina ez dit ia aholkurik eman.

- Nola aurkeztzen da 2018 urtea?

Lesio batzuetatik irten naiz, erreperatzen nabil eta otsailean lehiatzen hasiko naiz. Abuztuan egingo dira txapelketa nagusienak. Europako Txapelketa absolutura heltzea posible ikusten dut, bestela denboraldi txarra izango litzateke. 80 metro jaurtitzeko eskatzen dute, baina nik luzeago jaurti nahi dut. Bertara banoa, ondo lehiatu nahi dut. Horra iritsi bidean Espainiako Txapelketa absolutua irabaztea espero dut. Gero, osasuntsu banago, Perura joatea gustatuko litzaidake Iberoamerikako Txapelketan lehiatzera. Azken urteotan lur jota amaitu ditut denboraldiak, beraz, ikusiko da nola nagoen ordurako. Orain entrenatzailea aldatu dut eta nire gorputza gehiago ezagutzen dut.

- Eta etorkizunera begira amesten jarraitu?

80 metrotara heltzen banaiz, pozik. Astakeria da, historiako mugetara iristea, baina gogor egingo dut lan hori lortzeko. Hori bai, horra heltzeko bost urte edo gehiago falta dira eta orain daukadan garapenaren kurba leunduko da, jaisten ez bada. Dena perfektu badoa, tira, baina bidean gauza asko gerta liteke.



Lesioek arduratzen dute, batez ere, Odei. Azken aldian nahikoa erasan diote eta entrenatzailea ere aldatu du.

Datorren asteburuan hasiko duten Gaztaren Ibilbidea eta Bizkaiko Biraren azken etapak tartekatuko dira Klub Deportiboko Mendi Batzordeak 2018rako prestatutako mendi irteeretan. Aipatutako bi saio horiekin batera, urteko zubiak aprobetxatuta egingo diren hiru irteerek, Pirinioetara eta Picos de Europarako hiru asteburuek, mendiko eskia praktikatzeko bi asteburuek, pioleta eta kranpoiak erabiltzeko antolatutako beste batek eta egun bakarreko beste hainbat ekitaldik osatuko dute batzorde horrek "inoiz baino osotuago" aurkeztu duen egitaraua. Mendiaz gozatu nahi duenak badu, bai, aukera bikaina etxetik gertu, hemen bertan.

Orain dela gutxi osatutako mendi batzordearen zuzendaritza berriak (Jon Aristi, Mari Fran Arana, Josean legarda, Eva Agirrebeña, Julio Basterrika eta Igor Etxaburu), euren aurretik izandakoen bideari eusteaz gain, ekimen berriak prestatzeari ekin diote eta orain hasi den urterako "denetariako arloak ikutzen dituen" egitaraua antolatu dute. Badira, tartean, berritasunak: hor dugu sei etapatan banatuko den Gaztaren Ibilbidea, talde txikietan egingo diren teknika hobetzeko egunak eta, baita, gero eta finkatuago duten Kalamua Korrikalari Taldearekin prestatutako trailak ere.

Hainbat etapatan banatutako irteeren artean, Bizkaiko Birak bere azkenak emango ditu aurten amaitzeko falta zaizkion bost etapekin. Orain arte hamahiru egin dituzte, "irteera guztietan autobusa beteta", eta apirilatik irailera egin beharreko beste bostekin, "Gordexolatik Eibarrera" ekarriko dizkienekin, osatuko dute Bira hori. Bitartean Gaztaren Ibilbideak hartuko du lehentasuna Deporreko mendizaleen asmoetan: sei etapatan banatuko dute Gipuzkoatik irten gabe egin beharreko ibilbide hori. Probintziako hiru haran -Goierri, Urola Garaia eta Debagoiena- zeharkatzen dituen egitasmoa hila ren 20an hasiko da, Lizarrustitik Ordiziara eramango dizkien bide-tik. Egun horretan egin beharko dute distantzia luzeena, 22 kilometro eta erdi, "ia



zortzi orduko ibilerarekin". Txindoki igotzeko alternatiba eskainiko zaie parte-hartzaileei irteera horretan. Horrez gain, "irteera baikoitzean Idiazabaldo gazta bat zozketatuko dugu mendizaleen artean". Idiazabal gaztaren ekoizpen-ziklo osoa "hasieratik amaierara ikusteko aukera emango digu ibilbideak: ardiak bazkatzen diren parke naturalak, gazta egiten duten gaztandegiak eta gazta saltzeko azokak", diote antolatzaileek. Otsailean egingo duten 13 kilometroko Ordizia-Segurak (Arantzazumendi igotzeko aukerarekin), martxoan egingo duten 12,6 kilometroko Segura-Mirandaolak (Otaño igotzeko aukera), urriari bete beharreko 12 kilometroko Mirandaola-Arantzazuk (Gorgomendi) eta azaroan egingo dituzten 20,7 kilometroko Arantzazu-Otzaurtek (Aitzgorri igo daiteke) eta 14,5 kilometroko Otzaurte-Lizarrustik osatuko dute ibilbidea.

Era guztietako mendizaleei egokituta

Egitarau ezin zabalagoa prestatu dute Deporreko Mendi Batzordekoek 2018ari begira. Aipatutako bi zeharkaldi horiez gain, egun bateko lau irteera ditugu Gipuzkoan eta beste bat Iparraldean. Urtarrilaren 1ean Urkora egindakoaz gain, otsailaren 5ean urtero sagardotegi batera egiten dutena dugu: oraingoan Andoaindik Usurbilera joango dira, tartean Andatza igota. Ekainean Finalista Eguna ospatuko dute eta, iazkoari jarraituta, "dominen banaketa eta ekitaldi garrantzitsuenak Deporren bertan egingo dira eta ez Arraten". Azkenik, abenduaren 15ean, "urtea agurtzeko azken bazkaria egin aurretik" Az-

koititik Aittolara joango dira, Erlo igoz tartean. Iparralderako irteeran Baigorritik Erratzura joko dute, Auza gaina zapalduz tartean, ekainaren 9an.

Irteera luzeagoen arloan hiru dira nabarmendu ditzakegunak, hirurak ere lau egunekoak: Aste Santuan Extremadurako Jertara joango dira, maiatzaren zubian Montcayo eta Urbionera eta, azkenik, Santu Guztien zubian Kantauriar mendikatera. Badira ere bi egunetako asteburuetan burutu beharrekoak, guztiak ere eguraldi oneko sasoiari lotuta: ekainean Camile II bidezidorra eta uztailean Cambalés gaina egingo dituzte Pirinioetan, eta irailean Enoleko lakuetatik Oseja de Sajambreaino egin beharrekoa Picos de Europan.

Mendiko eskia maite dutenak ez dituzte ahaztu batzordekoek eta, horrela, irteera bi prestatu dituzte bi asteburuarako, biak ere martxoan burutzekoak. Esatan digutenez, "irteera horiek eta Pirinioetakoak Elgoibarko Morkaiko mendi taldekoekin elkarlanean egingo ditugu, aurreko urteetan bezala". Teknika arloa lantzeko asmoarekin bat eginez, "oraingoan Alluitzeko hegoaldean egingo dugu bat eta Anboto eta Mariren koban bestea". Eta hilabete honetan bertan, azken asteburuan, "pioleta eta kranpoiak modu egokienean erabiltzeko" aukera izango da.

Ezin dira ahaztu, ezta, Kalamuakoekin prestatutako trailak (NeguTrail, Udaberri-Trail, UdazkenTrail eta Gabon Trail) eta Galdaramiñoko igoera mendi lasterketa. Eta, jakina, martxoan "bi astetan" egingo diren mendi jardunaldiak eta urteroko urriko Jardunaldi Mikologikoak.



Disziplina anitzeko zentroa da ATHLETE, bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzuak eskaintzeko Xabi Moreno fisioterapeuta eta Borja Zabala prestatzaile fisikoak orain dela hiru urte martxan jarritako gunea. Kirol-fisioterapia modu integralean lantzen du ATHLETEk, urtetik urtera zerbitzu gehiago gehituz, eta teknika eta tresneria berriena erabiliz.



“Jendea ahal den azkarren eta hoberen indarberritzea bilatzen dugu”



Nola sortu zen ATHLETE?

Kirol arloan esparru profesional ezberdinetan ari ginen lanean, Xabi Moreno fisioterapeuta moduan eta Borja Zabala kirolarien berregokitzean, eta disziplina anitzeko zentroa irekitzea pentsatu genuen. Esparru ezberdinetako profesionalak helburu berarekin toki berean batzea zen gure asmoa, gure pertsonen indarberritzea ahal den azkarrena eta hoberena izateko.

Zein da ATHLETEn kontzeptua?

Pertsonak bere osotasunean sendatzeko egiten dugu lan ATHLETEn. Ez dugu fisioterapia pasiboa egiten. Kasu gehienetan patologia bakoitzak ariketa eta sendatze-prozesu espezifikoko behar dituela uste dugu. Esku-ohetan igaro behar den fasetik fase funtzionaleraino, kirola edo eguneroko bizitza egin ahal izateko pertsonaren egokitzapena ahal den hoberena izateko.

Nolako profesionalak osatzen duzue ATHLETE?

Unibertsitate formakuntza jaso dugun bost kide gara eta baldintza sanitario guztiak bete-

943 05 78 98 / 667 76 20 92 FACEBOOK: @athletefisio INSTAGRAM: @fisioathlete_eibar

tzen ditugu. Bi fisioterapeuta daukagu, kirol-munduan eta patologien sendaketa lanetan esperientzia duten Xabi Moreno eta Xeber Iruretagoiena; Borja Zabala berregokitzaila sendatze fasearen arlo funtzionalaz arduratzen da; Mikel Albillos entrenatzaile pertsonalak entrenamendu egokituak eskaini edota forman jartzen ditu gure bezeroak; Iker Ariño podologoak oinatzten biomekanikaren azterketak egiten ditu, pausoak bideoan grabatu eta ondoren ikerketa eginez, eta pertsona bakoitzari egokitutako barne-zolak egiten ditu; eta Josu Zubillaga dietista eta nutrizionis-

tak norberari egokitutako dietak eta hezkuntza nutrizionala eskaintzen du. Profesional bakoitzak bere eginkizunak betetzen ditu helburu bera lortzeko.

Hiru urteko ibilbidea egin du ATHLETEk. Nolako eboluzioa izan du?

Hasi ginenetik zerbitzu berriak gehitu dizkiogu gure eskaintzari, bai tratamenduen teknikei dagokionez, bai bezeroen sendatze azkarra eta osoa izateko erabiltzen dugun tresneriari begira. 160 metro karratuko zentroa da ATHLETE eta entrenamendu gunea, fisioterapia eta podologia gunek, krioterapia gunea, dutxak eta bainugela daukagu bertan. Punta-puntako tresneria daukagu eta pertsona bakoitzari egokitu ahal izateko denetarik materialak eskaintzen ditugu. Indiba Activ 902 makina, ekografoa eta elektrolisi aparatuek gehitu dizkiogu gure tresneriari; talde-entrenamendu edo barkarkako-entrenamendu zerbitzuak eskaintzen hasi gara; eta podologia zerbitzu berriarekin kiropodiak, kailu garbiketak eta oinatz-azterketak eskaintzen ditugu.

Nori zuzentzen zaio ATHLETE?

Pertsona guztientzat egokitutako zerbitzuak eskaintzen ditu ATHLETEk. Goi-mailako kirolarientzat, pertsona nagusientzat zein kirolik egiten ez dutenentzat daude irekita ATHLETEn atek, salbuespenik gabe.

Etengabeko berrikuntzan dago ATHLETE. Zein asmo duzue etorkizunera begira?

Kirol-talde edo klubekin hitzarmenak sinatzeko asmoa daukagu, talde edo klub horietan dauden kirolariek gurekin tratatzeko edo sendatzeko aukera izan dezaten. Bestetik, ATHLETEn lan egiten duten profesionalak etengabe ari dira formatzen, teknika eta tresneria berrienak erabiliz gure bezeroei zerbitzu one-na eskaintzeko.



ATHLETE
Fisioterapia eta
Kirol-Berregokitze Zentroa
Indalecio Ojangueren, 1

50 urteko ibilbidea daramate Eibarko Urpekoek. Urpeko arrantzan ondo pasatzeko aritzetik erreskateak egitera pasa ziren, uretan ibiltzeko zuten trebezia besteen esku utzi eta adorea erakutsiz. 50 urtetan taldeak izan dituen gorabehera, abentura eta istorioak gogoratu dituzte taldearen sorreran zein lehen urteetan aritu ziren kideek; eta oraindik ere, urpean igeri egiteko pasioa ez da eten euren barrenean.

Elkarrekin arrantzan ibiltzen ziren laupabost lagun batu ziren Eibarko Urpekoak taldea sortzeko. "Hondarbeltzetik ezagutzen nuen Xabi Larrañaga, Fernando Lasa nire lehengusua, Pedro Agirregomez-korta 'Petrus', Mario Rocandio, Jose Maria Ibarzabal 'Kalitxe' eta ni neu hasi ginela esango nuke", aipatzen digu memoria eginez **Roberto Fuentesek**. Fuentes berak jaso zuen urtarilaren 31an '...eta kitto!-k' banatzen dituen Eibarko Kirol Sarien aipamen berezia Eibarko Urpekoen izenean, taldeak kirol munduan bete dituen 50 urteengatik.

Taldearen sorrera ez zen aisialdian dabil-tzan gazte batzuei bururatzen zaien bultzada bat izan. "Uretan erreskate bat egiteko deitu ziguten Fernando eta bioi", gogoratzen du Robertok, eta "kluba sortuko dugu?", pentsatu zuten bapatean. Taldetxoa sortu eta, Fuentes JD Arrateren zuzendaritzan zegoela aprobetxatuta, taldea bertan eratzeko proposamena egin zuten. "Ondo iruditu zitzairen", eta horrela hasi zuten Eibarko Urpekoek 50 urteko ibilbidea.

Denetariko kirolak batzen zituen bere baitan JD Arratek, baina urpekoek ez zuten asko iraun bertan. "Urtebete eskas egon ginen", gogoratzen du Robertok. Txapelketarik irabazten ez zutela leporatzen zieten eta "taldea uzteko gonbitea" jaso zuten, "baina zeinen ondo pasatzen genuen ur azpian!". Kluba utzi



beharrak ez zuten euren pasioa eten eta berehala aurkitu zuten etxe berria, gaur egunera arte euren jarduna bere baitan hartzen duen familia: Eibarko Klub Deportiboa.

Itsaso gabeko urpekaririk

Urpeko-arrantza egiten zuten hasiera batean Eibarko Urpekoek. Poliki-poliki "familia handitzen" joan zen eta eskafandra-urpekaritzarekin hasi ziren geroago. "Gizaigelen garaikoak dira", dio **Javi Escudero** bere taldekideei buruz. Beste taldekideak baino gazteagoa izanik, Escudero ez zen hasieratik taldean egon, baina hamarkada asko daramatza bertan eta milaka bizipen gogoratzen ditu urpeko kideekin. "Euren artean, oraindik ere, izendapen hori erabiltzen dute. Ni, ordea, al-daketa sasoikoa naiz, gizaigetetik urpekaritza pasatu zenekoa".

Itsasorik gabeko herri bateko lehen urpeko taldea izan zen Eibarkoa, eta Espainiako Urpeko Arrantza Txapelketa antolatu zuena

ere. "Munduko urpekaririk onena etorri zen Espainiako Txapelketa horretara, Jose Amengual". 1974an antolatu zuten txapelketa, taldea sortu eta urte gutxira, eta antolatzeke egin behar izan zuten esfortzua oso handia izan zen. Milioi bat pezetako aurrekontua izan zuten horretarako, "sasoi hartarako dirutza zena". Txapelketak arrakasta handia izan zuten Eibar inguruan eta urpeko arrantzarekiko zaletasuna handiagotu zen.

Urpekaririk autodidaktak

Urpekaritzak dimentsio handia hartu du gaur egun mundu osoan zehar, Kantauri isurialdetik Thailandiako itsaso exotikoetara arte ikusi daitezke itsasoko sekretuak deskubritzen ari diren oxigeno botiladun gizon-emakumeak, baina 60. hamarkadan ez zen hain ohikoa. "Oso jende gutxi ari ginen urpekaritzan, orain beste mundu bat da", dio **Xabi Larrañagak**. "Gaur egun berehala egiten ditzute urpeko-bataioa eta urpekaririk bihurtzen za-

JON ALBERDI SAN PEDRO

I. Urteurrena

(1950/IV/16 - 2017/II/9)



Irribarre hori sekula ettuagu ahaztuko.

HIRE LAGUN MIÑAK





J.D. Martinez, Roberto Fuentes, Pedro Agirregomezkorta "Petrus" eta F. Lasa aitzindariak izan ziren herriko urpekoetan.



Roberto Fuentes, Xabi Larrañaga eta Jose M^a Ibarzabal "Kalitxe". Eurekin Javi Escudero, gaur egungo Urpekaritza Taldeko arduraduna.

ra; lehen, ordea, demaseko lana behar zen agiriak lortu eta urpean aritzeko". Agiriak jasotzeko Pasaiaiko Itsas-Komandantziara joan behar ziren, "oso zorrotza zen hori guztia eta marinelek izan zitezkeen santzioak jaso ahal genituen", aipatzen du Escudero.

Eibarko Urpekoek euren kabuz ikasi zuten ur azpian ibiltzen. "Gero, Tomas Errandorena ezagutu eta berarekin ikasi genuen", gogoratzen du Xabik. Errandorena urpekari profesionala zen eta bere ikastaroak jaso zituzten eibartarrek. Urpean aritzeko agiria lortzea asko kostatzen zenez, "ondo aprobetxatu" nahi izaten zuten eibartar gazteek. "Gozatzeko asmoarekin genbiltzan uretan. Beraz, noizean behin taldetxoak egin eta Debara joaten ginen oxigeno-botilekin", Xabik dionez. "Urpean paseoa eman, gozatu eta kitto".

Hasiera batean sarbide errazeko tokietara joaten ziren, "urpekaritza egiteko botilek asko pisatzen zutelako", eta urte batzuk geroago ontziarekin toki gehiagotara joateko aukera izan zuten, baina Deba eta Mutriku aldean ibili dira batez ere.

Itsasoa hain zabala izanik, beste ur batzuetan murgiltzeko aukera ez dute alferrik galdu. Galizia, Medes Uharteak (Girona) eta beste hainbat tokitako urpeko munduak eza-

gutu dituzte, "eta demaseko aldaketa somatzen duzu hemengo urekin alderatuz". Sasoi hartan irteera hauek egitea "jauzi handia" zela aipatzen du Javik, eta urpean igeri egiteko orduan ere ikusgaitasun aldetik alde handia dagoela dio Xabik.

Erreskate ugari

Urpean ondo pasatzeaz gain, beste ekintza ausartago batzuetan aritu izan dira euren ibilbidean. "Jendeak bazekien urpekariak girela eta erreskateak egiteko deitzen hasi ziren", aipatzen du Xabik. Ehun eta hogeitik gora erreskate egin dituzte Eibarko Urpekoek, eta bat-batean denak oroitzen ez badituzte ere, euren memoria fintzen doa kasu batetik bestera gogoratzen hasten direnean.

Istripuen ondorioz urpean geratutako gorpu asko atera dituzte, "baina beste batzuetan ezinezkoa izaten zen". Askotan euren bizia ere arriskuan jarri zuten, "izan ditugu hainbat ezusteko", baina eurek dioten bezala, "gorpu batek asko balio du, familiarentzat oso garrantzitsua izaten da gorpua uretatik erreskatatzea, bai arlo sentimentalarengatik, baita arlo legalarengatik ere".

Eibarko Urpekoak erreskateak egiten ari zirenean ez zegoen urpean aritzen zen Goar-

dia Zibilik eta eurak ziren ur azpian aritzen ziren ia bakarrak. Beraz, hara eta hona ibiltzen ziren salbatze-lanak egiten. "Sasoi hartan istripu asko egon zen Deba ibaian, negu baikoitzean pare bat auto erortzen ziren gutxienez", dio Javik. "Erreskateek klubaren jarduna baldintzatzen zuten". Urpeko taldeko batzuek lana egiteari utzi behar izaten zioten erreskateak egiteko, "eta ibaian sartzea oso gogorra da". Ikusgaitasun gutxiarekin hotz handia pasatzen zuten ("orduko trajeak ez ziren gaur egunekoak bezalakoak"), baina trebezia askorekin ausardia handia erakutsi zuten erreskateetan. "Eta gure jarduna erabat altruista zen, ez genuen kobratzen".

Preziorik ez duena urpekaritzarekiko duten pasioa da. Adinak ez du barkatzen, batzuk joan dira eta beste batzuk lehorrean geratu beharrean daude, baina ahal duenak itsasoari begiratzen dio oraindik. "Javi, ea aurten dozena erdi urperaldi egiten ditugun", zitzatzen dio Xabik Javiri. Badabilta irteerak prestatzen.

"Ur azpian sentitzen duzuna berezia da, oso atsegina", Xabiren ustez. Urak asko eman die eta eurek ere asko eman diote urari, eta baita gure herriari ere. Eibar urpera begira jarri zuten.



MARITXU AREITIO REMENTERIA (2018-I-2)

**"Zuregatik gara, eta zuregatik izango gara.
Eskerrik asko, ama eta amama.
Askok maite zaitugu"**

ETXEKOAK



Avia Eibar Rugby, eta Gipuzkoa eta Euskadiko selekzioarekin jokatu ostean, Espainiako selekzioaren deia jaso du Amaior Mayok. Historian lehen aldiz jokatu du Eibarko errugbilari batek Espainiarekin, eta toki gutxi Glasgow baino hobeagoak debut hori egiteko. Mayo urtarrilaren 19tik 22ra joango da selekzioarekin Eskoziara eta 21ean lagunartekoa jokatu du 'karduaren hamabostekoaren' aurka.

- Espainiako selekzioaren deia jaso du zu. Sorpresa?

Sorpresa handia! Pare bat urtetan gogor aritu naiz lanean, baina deia ez zen hel-tzen... orain arte.

- Hala ere, deia iritsi zitekeela antzeman zenezakeen?

Entrenatzaileekin egindako lanean eta batekin eta besteekin berba eginda, bai ir-ten da gaia. Euskadiko selekzionatzaileak ere esan zidan ea zergatik ez zidaten dei-tzen. Baina egia esan ez nuen espero, ho-rrelako deia jasotzea izugarria da.

- Euskadiko selekzioarekin, hala ere, sa-rritan aritu zara.

Azkeneko bi urteetan erregulartasunez jokatu dut Euskadirekin eta azken bi parti-duetan kapitaina izan naiz. Poliki-poliki go-ra egin dut. Orain jauzi bat gehiago eman-go dut. Azken finean, maila handiagoko jo-kalariak izango ditut alboan zein aurrean.

- Errugbilari eta errugbizale moduan zer suposatzen du Eskozian jokatzek?

Izugarria da! Aurrekoan Madrilen jokatu zuten Espainia eta Eskoziak elkarren aurka, eta orain Glasgoven jokatu dugu. Eskozian bertako selekzioaren aurka jokatzea itzela da. Jokalari berri asko egongo dira deialdi honetan, zuzenean ikusi eta, ondo eginez gero, selekzioaren dinamikan sartzeko. Espainiako emakumezkoen errugbi selekzioa Europako txapeldun izandakoa eta Mundialean zortzigarren postua lortutakoa da. Emakumezkoen errugbi selekzioak maila dauka eta ondo jokatu du.

- Eta maila horretara iritsi zara!

(Barreak) Pozik nago, ezin sinestuta. Deia jaso nuenetik jendeak zoriontzen nau, baina oraindik ez naiz jabetzen. Eskoziara heldu eta entrenatzen hasi arte ez nahiz ohartuko deialdiak berarekin dakarrenaz. Beste errugbi mota bat ikusiko du-dala uste dut.



AMAIUR MAYO

(errugbilaria):

**"Emakumezkoen
ERRUGBIAK
etorkizun polita
dauka Eibarren"**

**- Modu bereziren batean prestatuko za-
ra zita horretarako?**

Bi urte nabil gogor lan egiten eta entre-natzaileek esan didate orain larregi ez en-trenatzeko. Deialdiarekin urduri edo emo-zionatuta egonda lesioaren bat heldu daite-ke, beraz, berdin jarraitzea gomendatu di-date. Normal ari naiz entrenatzen, eta be-rez asko entrenatzen dut. Gainera, uste dut Eskozian ere asko entrenatuko du-gu-la, beraz, hobe da han nekatzea.

**- Historian lehen errugbilari eibartarra
izango zara Espainiako Selekzioarekin.**

Mikel Meabebasterretxea eta Gaizka Arrizabalaga aritu ziren Espainiako selek-zioarekin entrenatzen, baina ez zuten parti-durik jokatu. Beraz, niretzat oso pozgarria izango litzateke selekzioarekin jokatu-zen duen lehen eibartarra izatea, eta klubaren-tzat ere!

**- Eibarko emakumezkoen taldeak izan
duen hobekuntzaren seinale da zure
deialdia?**

Demaseko hobekuntza izan dugu az-ken urteotan. Aurreko urtean ez genuen partiduak irabazteko esperantzarik ere, baina oso ondo hasi ginen eta neurketak irabazten joan ginen. Hor hobekuntza na-barmena eman zen, baina aurten are

gehiago. Entrenatzaileak maila altua jarri du eta gelditu nahi zuena taldean geratu da. Taldeak bere maila asko hobetu du eta horrek eragina izan du maila indibi-dualean ere. Euskal Herriko taldeen mai-la igo egin dela esango nuke eta konpe- tentzia handiagoa da. Horrek ere lagundu digu maila hartzen. Normalean pare bat talde egon dira aurreko postuetan eta besteak desastre hutsak izan gara, baina aurten lehia gehiago dago.

- Nola zabilzate aurten?

Orain arte bigarren postuan aritu gara eta Gaztedirekin lehian ibiliko gara big-arren postu horren bila. Aurreko asteburuan jokatu behar genuen euren aurka, baina neurketa ez zen elurrarengatik jokatu. Eu-rei irabaztea oso zaila da, handiak direlako eta jende beteranoa dutelako.

**- Zergatik eman da hobekuntza hau
emakumezkoen taldean?**

Entrenatzaileen gauza izan dela uste dut. Orain dela bi denboraldi etorri ziren eta klu-ba hankaz gora jarri zuten. Cristina gure en-trenatzailea buru-belarri jarri zen gurekin la-nean eta demaseko entrenatzailea da. Au-rretik izan ditudan entrenatzaileekin ere oso gustura aritu naiz, baina Cristinak bes-te metodo bat dauka eta aldaketa handia

egitea lortu du. Talde askotan jokatu du, gurekin ere aritu zen iaz lesionatu arte eta berak jarri du taldeak behar zuen puntua. Bestetik, jende berria sartu da taldean, gazte asko. 27 urterekin taldeko beterano-etako bat naiz, beti gazteenetakoia izan ostean. Taldeko gazteek maila badaukate gaur egun, pentsa nolako maila izan dezaket hama urte barru. Hobetzeko tarte handia daukate eta gogo askorekin daude. Emakumezkoen errugbiak etorkizun polita dauka Eibarren. Orain, gainera, gauza

gehiago entzuten da gure inguruan eta beste modu baten ikusten gaituzte.

- Nolako bidea egin duzu hona iritsi arte?

16 urterekin hasi nintzen errugbian, ondo pasatzeko, beste barik. Gero lanean egon nintzen hainbat urtetan, baina errugbia beti gustatu izan zait eta lana amaitu zitzaidanean buru-belarri jarri nintzen errugbiarekin. Zorionez, berehala iritsi zitzaizkidan emaitza onak eta pixkanaka gorantz joan naiz.

- Oso zorrotza da errugbia?

Nortasunaren arabera modu batean edo bestean hartu dezakezu. Jokalari batzuk gutxi entrenatuta irtetzen dira zelaira, baina gero eta gehiago entrenatuz gero zugar konfiantza hartzen duzu eta hori zelaiaren igartzen da. Askoz gusturago jokatzen duzu, ez duzu sufritzen, albokoak ere ondo pasatzen du... Eibarko taldean denak gauden inplikaturata eta uste dut horregatik moldatzen garela hain ondo. Talde bat gara.

- Espainiako selekzioaren deia jaso ostean, zein erronka daukazu orain?

Hanka bat sartu dut selekzioan, baina bigarrena ere sartu behar dut. Hor geratzea lortu nahi dut eta erronka zaila da. Bidea ez da hemen amaitzen, hemen hasten da!

- Eibar bezalako talde txikian arituta ez da erraza izango Espainiako selekzioak deitzea, ezta?

Hori izan da arazoa orain arte. Nahiko atzean egon gara saikapean eta orokorrean Ohorezko Mailan ari diren jokalariei deitzen die. Euskal selekzioan aritzeak lagundu didala uste dut.

- Beste talde batera jauzi egiteko aukera ikusten duzu?

Nire asmoa aurten Getxon jokatzea zen, baina entrenatzaileak geratzeko eskatu zidan eta horrela egin nuen. Gero, Gabonen aurretik berriz izan nuen joateko aukera, baina taldekide bat lesionatu zen eta Eibarren geratu nintzen. Emaitzak ikusita, pozik nago. Ondo gabiltza eta ez dakit nora helduko garen, baina guk borrokatuko dugu. Bestetik, zaila da taldea uztea, taldea sortu zenetik ari naizelako hemen eta sentimendua handia delako.



Eskoizian debutatuko du Espainiako selekzioarekin Amaier Mayok.



**Mireia
Ormaetxea
Luis**

**3. urteurrena
2015-I-14**

Zure argiak,
zure oroitzapenak
eta zure irribarre
eder-goxoak
gure bihotzak
argitzen dituzte.

**BETI ZUREKIN,
ZURE GURASO
ETA AHIZPA**



**MIGUEL
AIZPIRI
LARRAÑAGA**

**2017ko abenduaren
24an hil zen**

**Ez dugu gaur
zure hitzik entzungo,
baina bai makina bat aldiz
zuk esanak gogoratuko.
Zure fuitsunea
ezin da bete. Gure
oroimenean zaitugu.**





SD



YOEL, COTE, ESCALANTE, RIVERA, GÁLVEZ, DANI GARCÍA, DMITRO
T. PEÑALBA, A. FERNÁNDEZ, M. CALVO, J. ANUZITA, I. BEA, J.L. MENDILIBAR, AMAIA GOROSTIZA, T. F
I. DIÉZ, CHARLES L., ARBILLA, CAPA, BEBÉ, SERGI ENRICH, I

*premier*class
viaiesbidaik

EIBAR

2017 / 2018



Santander

VIC, N.E. RAMIS, PAULO, JORDÁN, DAVID LOMBÁN, KIKE G., RIESGO
RUIZ, A. AZKARGORTA, B. JUL, M. SÁNCHEZ, A. GANDIAGA, X. MORENO, U. ORMAZABAL, G. ANDUEZA
NUI, I. ALEJO, JUNCÀ, R. PEÑA, P. LEÓN, FRAN RICO, ZAPICO

EL DIARIO VASCO



Amaia Gorostizak irabazi zituen Eibar KE-ren lehen hauteskundeak.



Garajes Garciak Liga eta Azkena Adahik Kopa irabazi zuten zaletuetan.

FOBALLA

Eibar Kirol Elkarteak hauteskundeak bizi izan zituen bere historiako lehenengo aldiz eta hor Amaia Gorostizak erraz irabazi zuen, aurka izan zituen German Albistegi eta John Sager-en aurrean. Bestalde, handik gutxira Eusebio Oyarzun presidente izandakoa hil zen. Urteko Batzarrean akziodunek 55 milioi euroko aurrekontua onartu zuten; inoizko handiena da eta 15 milioi euroko irabaziak aurreikusten dira. Proiektuen artean, Ipurua 8.100 ikusleraino handitzea espero dute.

Lehen Mailan jokatzeko duen lehen taldearen martxa bikaina da maila berean jokatzeko duen laugarren denboraldi honetan ere. Hala ere, Orellana eta Diop fitxatu dituzten Mendilibarren taldeak urtearen hasierarekin. Emakumezkoen lehen taldeak ibilbide bikaina dihardu egiten eta 1. mailara igotzeko borrokatuko duela dirudi. CD Victoria filialak 2. B mailara igotzea lortu zuen eta jokalariek prestatzen dihardu lehen talderako. Guztira, 14 taldek osatzen dute Eibarren harrobia. Horien artean asko dira euren multzoetan lehen postuan, eta inguruetan, daudenak. Jubeniletako Oho-rezko Mailako Eibar, bestalde, Euskal Kopako finala jokatzera heldu zen.

Ipuruak emakumezkoen euskal selekzioaren partidua hartu zuen eta, horrez gain, foballari beterranoen torneo garrantzitsua jokatu zen anexoan, hainbat taldeen par-

te-hartzearekin. Peñen arteko IX. Torneoa ekarri zuen Eskozia la Bravak gurera eta, hori gutxi balitz, anputatuen arteko foball partidu bitxia ikusi ahal izan genuen Unben. Ezin dugu ahaztu, ezta, bai Urkik (1. Erregional mailako Kopa irabazi zuen) eta baita Eibartarrak-ek ere (mende laurdena egin berritan) harrobiaren alde egindakoa.

FOBALL ZALETUA

Garajes Garciak irabazi zuen azken Liga, Ez Dok-i 12 puntu aterata; eta Azkena Adahik bereganatu zuen Kopa, finalean honek ere Ez Dok-i irabazita. Garajes Garciak bereganatu zuen Kirolbet Saria ere, Ermuko Murrakari finalean gailendu eta gero.

Foball 7.ko XX. Torneoak amaiera tristea izan zuen. Oraingoan partidu guztiak Unben jokatzekoak ziren, baina halako batean epaileak jasandako agresioak bertan behera laga zuen txapelketa.

ARETO-FOBALLA

Debabarrenak pertsiana jaitsi zuen 28 urtetan lehiatzen ibili eta gero. Probintziako talde onena izan arren, 2. B mailan jokatzekoak ziren, baina halako batean epaileak jasandako agresioak bertan behera laga zuen txapelketa. Urte guzti horietan Jose Ramon Iriarte taldeko ardura-dunak egindako lanak ez zuen ondo me-rezitako saririk jaso.



Areto-foballeko Debabarrenak atek itxi zituen.



Anputatuen arteko foball torneo jokatu zen.



Olabarria AUTOBUSAK

BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK

Besaide, 11. ELORRIO

Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar) / 94 - 623 16 47 (bulegokoa) / joxean@jolarbarria.com



Denboraldi honetan erosoago dihardute seniorrek sailkapenean.

ESKUBALOIA

Eibar Eskubaloi Taldeak zuzendaritza berria hautatu zuen ekainean eta, aurrekoek egindako bideari eusteaz gain, ekimen berriak abiatu zituzten, taldea jendearengana gehiago hurbiltzeko asmoz. Somos Eibar talde nagusiak seigarren amaitu zuen azken liga 1. Maila Nazionalean eta, taldea berrituta, egokitzen doa denboraldi honetan ere. Eta Mikel Zabala munduko azpitxapelkun izan zen Espainiako jubenil mailako selekzioarekin.

ERRUGBIA

Avia Eibar Rugbyko seniorrek 2. B mailari eutsi zioten azken denboraldian eta oraingoan erosoago dihardute sailkapenean erdialdean. Nesken taldea bigarren dago Ligan eta Unbeko Rugby 7-ko torneo eta Arrasateko txapelketa bereganatu zituen.



Mikel Zabala eibartarra munduko azpitxapelkun izan zen Georgian.



Saskibaloiairen aldeko zaletasuna indartzeko torneo antolatuta zuten.

SASKIBALOIA

Katu Kale gure herriko talde bakarrak 3. mailatik igotzeko asmorekin jarraitzen du oraingoan ere: dagoeneko igoera faserako sailkatu da. Azken denboraldian igoerako lauko finala jokatu ondoren, saskiratze erdiarengatik, puntu bakarrarengatik, ez zuen igo. Gainera, saskibaloi eskola sortzen dihardute eta gazteenen taldeak debutatu du dagoeneko.



Somos Eibarrek azken aldian izandako bajei aurre egin behar izan die.

Centro de fisioterapia

MIS

Manu Sánchez

KIROL FISIOTERAPIAN ADITUAK

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Kirol-masajea eta terapeutikoa
- Errehabilitazioa
- Kirol lesioen tratamendua
- Elektroterapia

Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)



Bittor Astigarragak Euskadiko txapela jantzi zuen hiru-txirlotan.



Sanjuanetako Euskal Jaialdian ikuskizun paregabea eskaini zuten.

PILOTA

Aspe enpresa gero eta jaialdi gehiago dabil ekartzen Astelenara, jendeak bikain erantzun duelako. Hala ere, Sanjuanetako jaialdia 25era pasatu zuten lehen aldiz, Irujo omendu zutelako Iruñean 24an. Klub Deportiboko Pilota Eskolak, bestalde, neska-mutilen talde bikaina osatu du eta emakumezko pilotariak ekarri zituen entrenatzera. Astelenak hartuko du aurten lehen aldiz jokatu den 1. mailakoen emakumezkoen buruz-burukoaren finala. Eta Eneko Fuentes Gipuzkoako eskola arteko txapelduna izan zen binaka.

HIRU-TXIRLO

Asola Berriko Bittor Astigarragak Euskadiko txapela jantzi zuen; Gipuzkoakoan, bestalde, Mikel Urkia izan zen Eibarko onena, hirugarren postuan. Eta Josean Urkia nagusitu zen Arrateko tiraldian. Bestalde, Jesus Mari Diez eta Bittor Rodriguez omen du zituzten Bolari Egunean.

HERRI-KIROLAK

Sanjuanetako Euskal Jaialdiak herri-kiroletako aberastasuna erakutsi zuen 24. edizioan. Eta ez ziren atzean geratu Sanisidroetako herri-kiroletako jaialdia eta Sanandresetako XV. Aizkolariaren Txapelketa. Horrez gain, Hodei Ezpeletak gazteen mailako Euskadiko txapela jantzi zuen eta Bihurri bere aita Eskozia la Bravako or-

dezkarria izan zen Highland Games-ean. Iñigo Jimenez gaztea, bestalde, lehen urratsak ematen hasi da harri-jasotzen. Eta, Euskal Jaiaren barruan, Jose Martin Bustinza "Tubiren" erakustaldia izan zen.

MENDIA

Mendi irteeretik kanpo, Patxi Usobiaga eskalatzaila, bestalde, muturreko zailtasunera itzuli da. Trail bost irteera egin dituzte azken urtean ere. Mendi-lasterketen arloan, Zegama-Aizkorri maratoian lau eibartar izan ziren, IX. Galdaramiño mendi igoeran Bernedo eta Urkiola eibartarrak nagusitu ziren, Eibarko Itzuliaren 20. edizioan 90 parte-hartzaile izan ziren eta Simon Aldazabal saria Osoro eta Urkiolarentzat izan zen, 55 partehartzaileekin.

ESKIA

Eski eta mendiko eski-irteeretik kanpo, Deporreko seikote indartsua izan zen Nafarroako eta Euskadiko eski txapelketan.

TIROA / EHIZA / ARKUA

Gisasolatarrak nagusi izan ziren Diana ehi-za elkarteko txapelketan. Fiel Target erakustaldia egin zen Legarreko frontoian eta karabina tiro txapelketa Sanjuanetan, Txal-txa-Zelaiko ohiko arku tiraketa erakustaldiarekin batera. Plater tiraldi berezia izan zen Arraten Armagin Elkartearen 50. urteurrenean, 130 parte-hartzaileekin.



Maila handiko eskiatzaileak ditugu herrian.



Ancasesera Aste Santuan egindako irteera.



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar



Ipuruako gimnastek etorkizun bikaina dute, eta ez beltza preseski.



Iker Martinezek aurrepauak egin ditu azken denboraldian ere.



Aitor Alfonso maila handiko lorpenen jabe izan da fitness-ean.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Ipuruako infantil oinarri mailako boskoteak urrezko domina eskuratu zuten Espainiako txapelketan eta denboraldi guztian 60 dominetik gora, euretako 23 Gipuzkoako txapelketan. Aste Santuko gimnasia Campusa egin zuten Ipuruan eta San Andres torneoan 200 gimnasta baino gehiago izan ziren parte hartzen.

JUDO / KARATEA / WU-SHU

Eibarren jokaturako jiu-jitsuko Espainiako Koparen 3. edizioan luzuzko parte-hartzea izan zen eta, horrez gain, judo torneo bi jokatu ziren egun berean: San Andres torneoa infantilentzat eta emakumezkoen nazioartekoa. Kalamuako Jonatan Terron Europako Master txapel bi jantzi zituen jiu-jitsun eta klub berekoek hainbat gerriko beltz lortu zituzten. Karatean Urki-Amañakoez ere euren progresioari eutsi zioten. Ttatt gimnasioko bost ordezkari domina eskuratu zuten Espainiako wu-shu txapelketan eta beste bost eibartar izan ziren Astelenako boxeoko eta sanda jaialdian.

FITNESS / KULTURISMOA

Aitor Alfonsok Euskadiko txapela jantzi zuen fitness-ean eta baita fisio-kulturismokoa ere. Iker Garcia-Pascual kulturistak Euskal-Nafarroakoa irabazi zuen eta bigarren sailkatu zen Espainiakoa.



Ttatt gimnasioko ordezkariak pozik Espainiako txapelketan lortutakoarekin.

- SUKALDEAK
- BAINUAK
- ETXEKO ALTZARIAK



ASKETA
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS



PROMOZIO BEREZIA
%10eko deskontua
ALTZARIETAN

Galdetu baldintzak dendan



Valenciaga Memorialaren proban saritutako guztiekin osatutako podiuma.



"Eibar Mundo Motor" erakusketak autozale eta motorzaleak bildu zituen.

ATLETISMOA / TRIATLOIA

Odei Jainaga xabalina jaurtitzaleak marka bat bestearen atzetik egin zituen denboraldian, Eibarko Klub Deportiboko atleten proba asko irabazi zituzten, hainbat mailatan. Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelketetan hartu zuten parte eta, esaterako, infantil mailako Mogelego neskak Gipuzkoako azpitxapeladun izan ziren. Julen Teranek hainbat proba irabazi zituen, kros modalitatekin hasita. Gipuzkoako Eskolarteko atletismo txapelketak Unbe izan zuten probaleku, 400 atleta baino gehiagorekin. Bolunburu Oroigarria, bestalde, bertan behera geratu zen, eguraldiak horretara behartuta. Asier Cuevas bigarren izan zen Gipuzkoako maratoi erdian, baita garaile ere distantzia horretatik gorako probetan: 50 kilometroko Santander Hiria eta Winschoteneko erraz irabazi zituen, Valladolideko Peñafiel herriko maratoi erdiarekin batera.

Herri-probetan, Behobia-Donostian 122 eibartar izan ziren, handik 15 egunera 38 Donostiako Maratoian, Lilatoira 87 eibartar joan ziren eta, azkenik, V. Asier Cuevas proban 248 helmugaratu ziren, euretako 119 Eibarkoak.

Eta, triatloi arloan, Delteco Eibar Triatloi Taldeak inguruko proba guztietan izan du ordezkartza, postu bikainekin gainera. Pello Osoro nabarmendu da hor, bai neguko triatloian, eta baita duatloian ere: azken

proba horretan Gipuzkoako eta Euskadiko txapeladun izan da, beterranoetan Iñigo Unanue moduan. Eibarko Duatloian Delteco seigarren izan zen taldeka.

TXIRRINDULARITZA


Eibarko Txirrindulari Elkarteak presidente berriarekin hasi zuen urtea: Angel Lopez da gaur egun. Eta Euskal Bizikletako ordezkariak Euskal Herriko Itzuliaren eta Klasikoaren ardura hartu zuten. Valenciaga Memoriala afizionatuen mailako estatuko proba garrantzitsuenean Caja Rural nagusitu zen, Alvaro Cuadrosekin. Euskal Herriko Itzulia, bestalde, Valverdearentzat izan zen. Aitor Hernandez ermutarrak sei garaipen eskuratu zituen ziklo-krosean; eta Jose Mari Arrazola beterranoena izan zen Treparriscos amaitzen. Eta Eibar Energia Hiria Debabarrenak taldea atera zuen eta 54 probatan hartu zuten parte.

MOTORRA

"Eibar Mundo Motor" erakusketak zabandu zen Portalean, azken urteotako motor munduaren ingurukoa omentzeko. Escuderia Eibarrek bertan aurkeztu zituen Efran Larena eta Txutxi Perez bizkaitarren eta Espainiako Rallyen Txapelketan parte hartu duen Iñaki Narbaiza eibartarraren denboraldia. Aitor Montero motor pilotak ere lan bikaina egin du Super Sport Espainiako txapelketan.



Klub Deportiboko hiru ordezkari podiumean.



Eibar Euskal Herriko Itzuliaren ardatza da.

M^a LUISA ETXEBERRIA NARBAIZA

2018ko urtarrilaren 5ean hil zen,
89 urterekin



Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA**
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





Emakumezkoen waterpolo taldeak sortu eta berehala irabazi zuen txapela.

IGERIKETA / WATERPOLOA / URPEKOAK

Taldea sortu eta handik gutxira Euskal Herriko Kopa irabazi zuten Urbat 3Hko neskek. Horrez gain, Urbat Urkotronik kadeteen taldeak liga bereganatu zuen eta senior mailako lehen taldea ere borrokan ibili zen Euskal Herriko Ligaren amaierara arte; hori bai, Gipuzkoako Kopa jaso zuten. Eibar Igerixan taldeko igerilariek bikain jardun zuten Gipuzkoako txapelketan, nesken taldea bigarren geratuz. Alebin mailako sei igerilarik Euskadiko Eskola Jokoetan hartu zuten parte, eta Espainiako txapelketan hiru mailatan (infantil, alebin eta absolutoa) izan ziren herriko igerilariak. Maiatzean urpekaritza ikastaroak antolatu zituen Deporrek batzordeak; 50 urte dira Urpeko taldea sortu zuela Juventud Deportiva Arratek.

SQUASH / TENISA

Alberto Ferreirok lehendik zuen Euskadiko txapela berretsi zuen laugarrenez, eta Gallastegi eta Salgado hiru onenen artean izan ziren Gasteizko Squash Torneoa. Eta Ruben Pinillos nagusi izan zen tenis txapelketaren X. edizioan, Unben jokaturako finalean.

XAKEA

Eibarko Hiria 33. xake txapelketan 70 xakelarik hartu zuten parte eta Gipuzkoako Eskolako Xake txapelketa antolatu zen Eibarren.



Alberto Ferreiro Euskal Herriko ranking-aren goian jarraitzen du.



Ruben Pinillos nagusitu egin zen berriro tenis txapelketan.



Sanjuanetako Kruzeta Sarian 70 xakelari bildu ziren Untzagan.

GASOLEOEN BANAKETA

estación de servicio **kantoi** eibar

20.000 L. 2.000 L.

Otaola etorbidea, 13-Bis

Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA

24 ordu

fM Funeraria-Ehorztetxe Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

25 urte

Barren Astekarirako LAN-POLTSA

Ordezkapenak egiteko lan poltsa osatzen ari gara (kazetaria, komertziala eta maketatzailea). Interesatuak curriculum vitae-a helbide honetara bidali dezakezue:

barren@elgoibarkoizarra.eus 943 744 112

Kalebarren plaza, 2. - 20870 ELGOIBAR

BARREN



JOSE LUIS IRIGOIEN: Eibarren desagertzen ari den arkitektura mota bat.

NEREA GORRITI (aktorea)

“Euskaraz egiten den produktu batek horrelako arrakasta izatea **ohorea da**”

Gazteen (eta ez hain gazteen) artean arrakasta handia dauka ‘Go!azen’ musikalak, eta eszenatoki gainera egin du jauzia orain ETB 1-eko telesailak. Bihar 15:00etan eta 17:00etan eskainiko dute ikuskizuna Coliseoan eta aurpegi ezagun bat ikusi ahal izango dugu aktoreen artean, izan ere, Nerea Gorritik Erikaren papera egiten du telesailean. ‘Goenkale’ eta ‘Aitaren Etxean’ aritu da aurretik aktore eibartarra, eta 2018ko Poltsiko Antzeri Sorkuntzaren lehen saria jaso duen ‘Zaharrak berri’ antzerkia estreinatuko du Donostian otsailean.

- Erikaren papera egiten duzu ‘Go!azen’-en. Zer moduz irakasle zorrotzaren azalean?

Erika eta ni oso pertsona ezberdinak gara, ez daukagu inongo antzekorik, eta horrelako erronkak hartzea beti da dibertigarria. Telesailean oso eszena komikoak sortzen dira Erikaren inguruan eta pozik nago, dibertigarria delako. Telesailak duen giro on eta alaiari kontrapuntua jartzen dio Erikak.

- Nola bizi duzu ‘Go!azen’ fenomenoa?

Poz handiz. Euskaraz egiten den produktu batek horrelako arrakasta edukitzea ohorea da. Jendeak telesaila hainbeste ikustea eta jarraitzeak poz handia sortzen digu.

- Kalean ere nabari izan duzu arrakasta hori?

Bai! Ez nuen espero, lehen aldia da horrelako zerbait gertatzen zaidana. Jendea hurbiltzen da eta argazkiak eskatzen dizkigute. ‘Goenkale’ aritutakoa naiz, baina gauza ezberdina da. Umeek daukaten naturaltasuna berezia da. Polita da eta gustura eramaten dut.

- ‘Go!azen’ musikala da. Zure pertsonaiak ere abesten du seriean?

Bai, pare bat alditan aritu da Erika abesten. Ni neu abeslaria naiz baita ere. Madrilen ‘Racoon’s’ musika-taldean ari naiz eta rockabilly antzeko bat egiten dugu. Zentzu horretan, antzezpena eta abestea bateratzea oso polita izan da.

- ‘Racoon’s’ taldearen jarduna uztartzen duzu aktore lanarekin?

Hainbat kontzertu eman ditugu eta orain konposaketa lanetan gabilta. Pozik nago proiektu honekin, abestea asko gustatzen zaidalako eta kontzertuak ematen asko gozaten dudalako. Oso ezberdina da antzeztea eta abestea. Antzezten duzunean beste pertsona baten azalean jartzen zara, baina abestean zu zeu zara.

- Beti eduki duzu artista sen hori?

Txikitatik! Eskolan egiten genituen antzerkiak antolatzea asko gustatzen zitzaidan. Hori zen ikasturteko gauzarik onena niretzat!

- Bada, artista moduan egin duzu ibilbide profesionala. Zaila da mundu hori?

Oso karrera geldoa da. Zorrie handia daukat etxean asko lagundu didatelako eta beti animatzen daudelako, baina zaila da.

- Kanpora joan behar izan zinen ikastera...

Lehenengo Donostian ikasi nuen pare bat urtez eta horretan aritu nahi nuela ikusi nuen, Madriler joatea erabaki nuen, han aukera eta eskola gehiago daudelako. Lau urteko karrera ikasi nuen, masterra egin eta New Yorkera joan nintzen. Aktorea izateko talentua edukitzea garrantzitsua da, bai-



na baita prestakuntza ere. Ikastea garrantzitsua da eta horrek segurtasuna ematen dizu.

- Madrilen aukera asko dago, baina konpetentzia handiago izango da, ezta?

Zaila da burua sartzea, aktore asko dagoelako.

- Azkenean, Euskal Herrian lan egiten amaitu duzu.

Ez nuen espero. Euskal aktoreentzat zorrea da euskarazko telebista kate bat eta eus-

karazko produktuak sortzen dituzten ekoizle-etxeak edukitzea. Beste aukera batzuk ematen dizkigu. Azken aldian euskarazko film gehiago egiten ari dira, kalitate handikoak, eta loraldia ematen ari da zentzu horretan.

- Bihar Coliseoan izango zaitugu. Zer moduz sentitzen zara zita horren aurrean?

Demaseko ilusioa ematen dit! Eibarren antzeztan dudan lehen aldia izango da. Familia, lagunak eta ezagunak egongo dira, eta oso pozgarria da.

“Ondo uztartzen dut Racoon’s taldearekin abestea Go!azen!-eko aktore lanarekin”



Elliot Murphy kontzertua emango du gaur gauean Coliseoan

Gaur 22:00etatik aurrera Elliot Murphy zuzenean entzuteko aukera izango da Coliseo antzokian. New Yorken artisten familia batean jaioa, Elliotek 1971n ekin zion Europako bere ibilbideari eta lehen urteak gogorak izan ziren, kalean jotzen ibili zen eta. Gauzak horrela, AEBra itzuli zen eta han grabaketa-kontratu bat eskuratu bezain laster, lan bat bestearen atzetik etorri ziren: "Lost generation" (1975), The Doors taldearen produktorea zen Paul Rothschildek ekoitzia, "Night lights" (1976), Billy Joelen kolaborazioarekin, "Just a

story from America" (1977), Phil Collins eta Mick Taylorrekin, eta askoz gehiago. Denboran gertuago, "Selling the gold" (1996) izenekoan Bruce Springsteenekin egindako duo paregabea nabarmen-tzeko modukoa da. Musikaria izateaz gain, Murphy idazlea ere bada, eta kontakizun laburrekin hainbat bilduma eta bi eleberri eman ditu argitaratu. Tarteka, Rolling Stone (AEB) eta Vanity Fair (Frantzia) aldizkarietan idazten du, baita beste argitalpen batzuetan ere. Kontzerturako sarrerak 20 euro balio du (14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Gaurtik aurrera bi erakusketa berri hartuko ditu Portaleak

Urte berriarekin batera, erakusketa bi zabalduko dituzte gaur arratsaldean Portalean. Batetik "Norosur o" (o" izenburukoan, Miguel Angel Pedroza Ochoaren eskulturak bildu dituzte. Mexikon 1986an jaiotako artistaren eta Euskal Herriaren arteko harremana 2012-2013 ikasturtean sortu zen, arteari lotutako masterra EHUan ikasten hasi zenean eta gaur zabalduko

duen erakusketarako Fondo Nacional para la Cultura y las Artes erakunde mexikarraren babesu jaso du. Eta bestetik, "Señales del ruido" izenburukoan, Florencio Alonso Sevillaren lanak ipini dituzte ikusgai: argazkilaritza digitaletik abiatuta, artistak irudiei desfokuratzearen distortsioa edo zarata txertatu die eta emaitza egunerokotasunean ikusten dugun errealtatearen



ixuraldaketa moduko bat da. Erakusketa biak aldi berean ikusteko aukera egongo da, otsailaren 4ra arte, ohiko ordutegian (martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era).



Varelen argazkiak Kokojatenen

Calbeton kalean dagoen Kokojaten arkitektura estudioak erakusketa ipini du Varela argazkilaria aintzinako hainbat irudirekin. Urtarrilaren amaiera arte egongo da ikusteko aukera eta, lokala zabalik dagoen bitartean nahi duenak arazo barik sartu daiteke.

Artile-tailerra Illunabarrian-ekin

Artile-tailerra antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak urtarrilaren 24rako (eguzatena), 18:30etik 20:30era, elkartearen lokalean (Urkizu, 11 solairuartea). Heldu zein gazteek har dezakete parte Alluitz Naturaren eskutik egingo den tailerrean eta, nahi izanez gero, umeekin joateko aukera ere egongo da. Izena emateko ...eta kitto! Euskara Elkartera joan edo 943200918 telefonora deitu daiteke, astelehenean aurrera (hilaren 22ra arte) eta kuota 3 eurokoa da.



Mireia Ormaetxea Luis
3. Urteurrena (15/01/14)


Mireia, lagunen artean gazteena, hiru urte zure irribarrea ikusi gabe, hiru urte zu gabe... Beti izango zaitugu gure oroimenean zurekin bizi izandako uneak ahaztezinak baitira. Zure bizipoza, alaitasuna, indarra, bizitzeko gogo... gure eredu izan zirelako eta izaten jarraituko dutelako.
Maite zaitugu!

ZURE KUADRILLA



Pello Mariñelarenaren Topalekuko erakusketa gaur itxiko dute

Eibarko Sarek "#StopDispertsioa / Ibon ETXERA" kanpainaren barruan antolatuta, Pello Mariñelarenaren marrazki eta margoekin osatutako "Guk ibilitakoak gureak dira" erakusketa zabaldu zuten astelehenean Topalekuan. Ikustera joateko azken eguna gaur da eta 18:30etik 21:00etara egongo da zabalik.



Urtarrilean bi argazki erakusketa egongo dira tabernetan

Klub Deportiboko Argazki Taldekoen eskutik, aurten ere erakusketak egongo dira tabernetan hileru. Urtarrilaren amaiera arte El Ambigu tabernan Sonia Alvarezren argazkiak ikusteko aukera izango da eta Portalea jatetxean, berriz, Uztargi Klik taldeko hainbat kideren lanak (Jose Miguel Bilbao, Javier Guinea, Juan J Salas, Seve Sanchez, Paco Valderas, Primi Villaltarena) ipini dituzte.

Irigoienen argazki-erakusketa Santurtzin

Santurtziko Bihotz Gaztea Argazki Taldeak antolatuta, otsailaren 28ra arte Jose Luis Irigoien "Anizkizunak" argazki erakusketa ikustera joateko aukera izango da Santurtziko The Wagon aretoan (Vapor Habana, 4) edo, nahiago izanez gero, erakusketa osatzen duten irudiak internet bidez ikus daitezke (www.nosolofoto.com) sartu eta dagokion irudi-galeria zabaldua.



Zapatuetako tailerrak

Astelehenean itxiko dute Zapatuetako Tailerrak egitasmoaren barruan antolatutako ikastaroetarako izen-ematea. Oraingoan emango dituzten tailerrak hauek dira: Goma espumazko txontxongiloak (3. HH), Goma Eva-ko apaingarri eta Aratosteetarako osagarriak (1. LH), Decoupage (2. LH), Dantza garaikidea (3. eta 4. LH), Globoflexia (5. eta 6. LH).

Marrazki lehiaketa Galiziako Etxean

Urteroko moduan, Galiziako Etxekoek Gabonetako marrazki lehiaketa antolatu dute 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Maila bi bereziko dituzte adinaren arabera (6-9 urte eta 9-12 urte) eta maila bakoitzean hiru sari banatuko dituzte. Irabazlearen marrazkia hurrengo Gabonak zoriontzeko postaletan erabiliko dute eta, lehiaketa amaitzean, parte hartzen duten ume guztiei txokolata emango diete.



Antzerkia datorren barixakuan

Kabia Teatro taldeak "Alicia después de Alicia" lana taularatuko du Coliseoan datorren asteko barixakuan, 20:30ean. Borja Ruizek zuzenduta, lan honetan parte hartzen duten antzezleak Haizea Aguila, Florentino Badiola, Karol Benito, Yolanda Bustillo, Maria Gorizelaia, Javier Liñera eta Juana Lor dira. Lanak agertoki bakarrean batzen ditu irudien animazioa eta 7 aktoreen interpretazioa, biolinista baten barneko munduan murgiltzeko: Alizia. Haren bizitzako momentu kritiko batetik abiatuta, Aliziak bere grinez galdetuko dio bere buruari, beharrene eta ametsen artean noizbehinka sortzen den kontraesanaz eta haurtzaroko idoloen suntsipenaz. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

MILA ARRIETA ZUBIMENDI

(4. urteurrena: 2014-I-15)

**"URAK DAKARRENA
URAK DAROA
ZUK EMANDAKOA
GUREKIN GERATZEN DA"**





FELIX MORQUECHO

Sare sozialik ez?

Lehenengo batean zera entzun nion lagun bati: "Nik ez daukat sare sozialik; ez Facebook, ez Twitter... ezebezt". Azken urteetan aldaketa izugarriak bizitzen dihardugu kontu horietan: orain dela hamarkada bat balio zuena orain iragana da, eta gaur punta-puntan dagoen teknologiak auskalo zenbat iraugo digun. Bitartean, gure artean jarrera desberdinak ikusten ari gara. Ez kontatu inori, baina nik berrogei urteak pasatu ditut dagoeneko, eta nire inguruko artean denetarik dago. Batzuk sare guztietan daude sartuta, beste batzuk batekin nahikoa dute, badaude denbora guztian konektatuta daudenak, baita mobila etxean lagata azkurerik ez dutenak ere. Ezin zaio inori esan zer egin behar duen, non egon behar den eta non ez. Baina besteak zioena? "Nik ez daukat sare sozialik; ez Facebook, ez Twitter... ezebezt". Agian Instagram ez, edo Whatsapp ere ez, baina sare sozialak? Kuadrila ez al da sare soziala? Eta familia? Laneko lagunak? Bakoitzak bere loturak dauzka eta denak ez dira wifi edo zuntz optikotik bideratzen. Buruz-buru ere jorrotzen dira perfilak, 'followerrak' eta lagunak. Internet plaza handia dugu, baina plaza plaza... Untzagan daukagu, gure kaleetan.

Euskeraren transmisioari buruzko hitzaldia emango du Paula Kasaresek

Eibarren AKEBAI plataformaren eskutik abenduan Kike Amonarrizen saioarekin abiatu zen "Hamaika Berbaldi" ekimenak jarraipena izango du aurten ere eta, horren baitan, urtarrilerako saioa prestatu dute. Oraingoan arreta hizkuntzaren transmisioan ipini nahi izan dute eta, hori dela eta, gai horretan aditua den Paula Kasares gonbidatu dute.

Urtarrilaren 23an (martitzena) emango du "Umeak euskaldun haztea helburu" izenburuko hitzaldia, 19:00etan, Portaleko areto nagusian. Paula Kasares (Iruñea, 1969) Euskal Filologia eta Gizarte eta Kultura Antropologia ikasketak egin eta gero, Soziolinguistika jorrotzeari ekin zion eta gaur egun Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea da. Bere Doktore tesiak "Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunetaz belaunetara jarraipena eta hizkuntza sozializazioa Nafarroako fami-



lia euskaldunetan" izenburua dauka eta, horrez gain, euskararen transmisioari buruzko lan ugari- ren egilea ere bada. Horrekin batera, Paula Kasares Hizkuntz Eskubideen Behatokiko lehen zuzendaria izan zen, 2001 eta 2003 bitartean. Euskaltzain urgazlea da 2006. urteaz geroztik.

Papiroflexia eta origami tailerra

Berbetan programaren baitan, urtarrilaren 27an (zapatua) papiroflexia eta origami tailerra antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Ikastaroa 10:30ean hasi eta eguerdian, 12:30/13:00ak aldera amaitzea aurrerikusi dute antolatzaileek eta Rafa Rodrigok emango du, ...eta kitto!- n bertan (Urkizu, 11 solairuarean). Tailerra haur zein helduentzat bideratutakoa izango dela aurreratu dute eta 4 urtetik gorako umeek arazo barik har dezakete parte, heldu baten laguntzarekin. Izen ematea astelehenean zabaldu eta hilaren 25ean itxiko dute eta interesa duenak elkartera jo dezake zuzenean edo, bestela, 943200918 telefonora deitu.



Rafa Rodrigok emango duen tailerrean parte hartzeko izena emateko epea hilaren 25ean itxiko da.




Kultur aniztasunaren inguruko erakusketa zabaldu dute Armagintzaren Museoan

"Eibarko koloreak", udalerriko Immigrazio Sailak eta Kultura-arteotasun arloko elkarteek Eibarren antolatutako jardueren argazki erakusketa za-

baldu zuten atzo Armagintzaren Museoan, Maroko, Senegal eta Nepalgo musika eta gastronomiarekin girotutako ekitaldian. Erakusketarekin udalean, Gizar-

tekintza sailaren bidez immigrazioa eta aniztasuna lantzeko dauden zerbitzu, baliabide eta elkarteen berri eman nahi dute eta Diapo Lete, Toyor Al Hanna, Gazte Safa eta Nepaldarrak elkartearen laguntzarekin antolatu dute. Argazkiak hilaren 28ra arte egongo dira ikusgai, Museoaren ohiko ordutegian, eta bisita gidatua eskatzeko aukera ere badago, aurretik 943 70 84 42 telefonora deituta.





Mugertza krosaren 75. edizioa ELGOIBARREN


Olinpiar Jokoetako bi txapeldun izango dira domekan, urtarrilak 14, Mintxetan: Ruth Jebet (Bahrein, 1986) eta Conseslus Kipruto (Kenya, 1994). Espero zitekeen moduan goi mailako parte hartzea izango du Juan Muguerza Nazioarteko Krosaren 75. ekitaldiak. Gizonezkoen senior proban Elgoibarko krosa irabazi duten hiru txapeldun lehiatuko dira: Leonard Komon, Timothy Toroitich eta Conseslus Kipruto. Sekula baino atleta gehiagok parte hartuko dute aurtengo krosean, 900 lagun inguruk hamar lasterketetan. 10:00etan hasiko da lehena.



AWEK Blues Band datorren astean ERMUAN

Frantziako blues talderik garrantzitsuenetakoak kontzertua eskainiko du urtarrilaren 20an Lobianon, 20:00etan. Lau kidek osatzen dute banda eta blues-aren arlo guztiak lantzen dituzte, Chicago bluesetik hasi eta Texaseko kutsuraino, maisuki nahasiz souflea eta swinga. Bederatzi album eta hemezortzi urteko eskarmetuarekin, klasikotasuna eta berezkotasuna nahasten duen taldea da. Sarrerak 8 eurotan.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Rosario Markina Rementeria. 62 urte. 2017-XII-31.
- Miguel Artetxe Aranburu. 90 urte. 2018-I-2.
- Maritxu Areitxo Rementeria. 93 urte. 2018-I-2.
- Julio Gamarra Crespo. 89 urte. 2018-I-3.
- Justina Orozko Arrillaga. 88 urte. 2018-I-3.
- Antonio Garcia Carril. 83 urte. 2018-I-3.
- Diego Verdejo Lopez. 67 urte. 2018-I-3.
- M^a Luisa Etxeberria Narbaiza. 89 urte. 2018-I-5.
- M^a Carmen Arrizabalaga Garagarza. 88 urte. 2018-I-5.
- Pedro Llamas Romero. 89 urte. 2018-I-6.
- Maria Etxeberria Txapartegi. 94 urte. 2018-I-6.
- Pilar Alonso Garcia-Abad. 89 urte. 2018-I-8.
- Guillermo Sorriketa Barcena. 87 urte. 2018-I-8.
- Teodora Benito Cuevas. 89 urte. 2018-I-10.

jaiotakoak

- Jon Arkotxa Larrarte. 2017-XII-28.
- Mateo Rodriguez Fernandez. 2017-XII-29.
- Kenalla Matondo Saka. 2017-XII-30.
- Paula Gonzalez Yañez. 2018-I-1.
- Oriana Cordoba Villaquiran. 2018-I-3.

farmaziak

- Barixakua 12
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Zapatua 13
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)
- Domeka 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 15
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 16
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 17
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguena 18
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 19
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2018AN-
 Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

1	4	3	9	5	8	6	7	2
9	5	2	7	6	3	8	1	4
7	8	6	1	4	2	9	5	3
5	3	9	4	7	1	2	8	6
6	2	1	8	3	9	7	4	5
4	7	8	5	2	6	1	3	9
3	1	5	6	9	7	4	2	8
8	6	4	2	1	5	3	9	7
2	9	7	3	8	4	5	6	1

	7				9	3		
3			1	7		5		
				4		8		
		7			9			5
	3						1	
1			2			4		
	2			3				
	1			2	4			9
	4	5					6	

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udalizaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....902 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 12

ZINE-FORUMA

19:00. "Un feliz acontecimiento" (Zuz: Rémi Bezançon). Pagatxa Emakume taldeak antolatuta. Portalean.



KONTZERTUA

22:00. Elliott Murphy. Sarrera: 20 euro (14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.



Zapatua 13

ELKARTASUN BAZKARIA

10:00. Haize Aroak eta Eskozia La Bravak antolatutako txosna zabaltzea: pintxoak, edariak, DJ Kurro, zozketak...

15:00. Paella, sorbetea eta debaldeko edana, 10 euroren truke. Untzagan.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

ANTZERKIA

15:00 eta 17:00. "Golazen" (Glu Glu). Coliseoan.



KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

Domeka 14

LEHIAKETA

16:30. Gabonetako marrazki lehiaketa, 6-12 urteko umeentzat. Txokolatea. Galiziako Etxean.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

Eguena 18

URTEURRENA

07:00. BNI Armagin-en lehen urteurrenaren inguruko ekitaldia. Coliseoan.

EIBAR COWORKING

10:30/12:00. "RGPD: Nuevo reto para proteger nuestra privacidad" jardunaldia. Eibar Coworking-en (Eibarko Txikito, 8).

Erakusketak

Urtarrilaren 12ra arte:

– PELLO MARIÑELARENAREN "GUK IBILITAKOAK GUREAK DIRA". (Topalekuan)

Urtarrilaren 28ra arte:

– "EIBARKO KOLOREAK". (Armagintzaren Museoa)

Urtarrilaren 31ra arte:

– SONIA ALVAREZEN ARGAZKIAK. (El Ambigú tabernan)

– UZTARGI KLIK (JOSE MIGUEL BILBAO, JAVIER GUINEA, JUAN J. SALAS, SEVE SANCHEZ, PACO VALDERAS, PRIMI VILLALTARENA) TALDEAREN ARGAZKIAK. (Portalea tabernan)

Otsailaren 4ra arte:

– "NOROSUR O (O)" MIGUEL ANGEL PEDROZA OCHOAREN ESKULTURAK. (Portalean)

– "SEÑALES DEL RUIDO" FRANCISCO ALONSO SEVILLAREN ARGAZKIAK. (Portalean)

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

13an: 22:30 (2 aretoa)

14an: 20:00

15ean: 20:30

"Una bolsa de canicas"

Zuzendaria: Christian Duguay



(2 ARETOAN)

13an: 19:45 (1 aretoa), **22:30** (1)

14an: 17:00, 20:00

15ean: 20:30

"Una vida a lo grande"

Zuzendaria: Alexander Payne



(ANTZOKIAN)

13an: 19:45, 22:30

14an: 17:00 (1 aretoa), **20:00**

15ean: 20:30

"Que baje Dios y lo vea"

Zuzendaria: Curro Velazquez



(ANTZOKIAN)

13an: 19:45 (2 aretoa)

14an: 17:00

"Sola en casa"

Zuzendaria: Peter Lepeniotis



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, URKO, urtetxua bete dozu-eta. Patxo handi bat Etxahun, Asier, Xabat, Edurne, aitzitxa, amama eta guztion partez.



Zorionak, AINHUA, haraiñegun 4 urte bete zenduaz-en-eta. Maite zaittugu bihotzez. Batez be, amatxoren partez.



Zorionak, UXUE, ezin polittaguori, hillaren 9xan 9 urte egin zenduaz-elako. Aitta, ama, Unai, Lola eta famelixakuen partez.



Zorionak, AMAIA Plaza, abenduaren 29xan 8 urte bete zenduaz-en-eta! Patxo bat etxekuen eta, batez be, Nerearen partez.



Zorionak, EIDER, zure 4. urtebetetzian. Musu handi bat zure famelixa eta, batez be, lehengusu eta lehengusiñen partez.



Zorionak, MAIALEN, hillaren 3an 6 urte bete zenduaz-en-eta! Patxo handi bat etxekuen eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, ANER, txapeldun, etzi 7 urte egingo dozuz-eta. Musu bat famelixaren partez, eta atximurka bat Liberen partez.



Zorionak, MALEN, astelehenian 6 urte beteko dozuz-eta. Musu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, GARAZI, haraiñegun 6 urte bete zenduaz-en-eta. Patxote potolo bat, neska handi!, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HODEI, hillaren 9xan 5 urte bete zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Amets anaixaren partez.



Zorionak, MAREN, astelehenian 6 urte egingo dozuzelako. Musu bat danon eta, batez be, Noah eta Nahiaeren partez.




Zorionak, IZASKUN, hillaren 6xan urtiak bete zenduaz-en-eta. Musu handi bat famelixa eta laguneren partez.



Zorionak, GURI!!! Ha ze egun politta urtarrillaren 8xa, ezta? Patxo asko!




Zorionak, guapisimak!! Urtarrillak 4, 6, 8... Patxo handi bat!



Zorionak, JANA (hillaren 16xan 10 urte egingo dozuz) eta PABEN zure osaba (17xan). Musu handi bat famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, EKHI (hillaren 3an) eta GORKA (hillaren 8xan), urtiak bete dozuzelako. Musu handi bat etxekuen eta, batez be, Eñauten partez.



Zorionak, hirukote!!! UNAX (abenduaren 20xan, 11 urte), LUCAS (abenduaren 31n, 11 urte) eta DANIEL (urtarrillaren 2xan, 12 urte). Ze ondo pasatu genduan danok alkarrekin!!!



Zorionak, MARKEL Uribe Elezpuru, aurreko domekan 4 urte bete zenduaz-elako. Musu handi bat famelixaren eta, batez be, MAITANE zure arrebaeren partez.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Apartamentua salgai edo alokagai Polonia Etxeberria 14, behean. Estreinatzeko. Tel. 649-935239.

1.2. Errentan

- Pisua behar da Eibarren, konpartitzeko, edo gela errentan. Tel. 660-114801.
- Pisua, edo gela, hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 632-139806.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. 2/3 logelakoa. Tel. 632-337083.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 602-463828.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Gazteendako lokala alokatzen da Jardñeta, 34an. Jarduerarako lizentziarekin. Inguruan etxerik gabe. Instalazio berriak. Aireztapena eta argi naturalarekin. Tel. 656-756485.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 635-189294.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-841284.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-620344.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-844282.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 678-112785.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Eraikuntza, berriztapen, pintura eta garbiketarako esperientzia. Tel. 600-264460.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 672-654647.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-552206.
- Emakumea eskaintzen da goizez edo 18:00etatik aurrera nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 655-094780.
- Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka, gauzez edo asteburuetan. Erreferentziak. Tel. 652-894575.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 671-479280.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 686-077316.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Orduka zabal. Tel. 632-067943.
- Emakume euskalduna eskaintzen da gauzez Mendaroko ospitalean gaixoak zaintzeko. Tel. 669-179522.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-723191.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-296900.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-139806.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan eta gauzez ere. Tel. 632-337083.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo gauzez. Tel. 642-249158.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 602-490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 632-093076.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-907532.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo beste edozein lanetarako. Tel. 632-997792.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko: bulegoak, tabernak, pegorak, lokalak... Tel. 632-558402.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 671-763558.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauzez eta asteburuetan. Tel. 603-743240.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 643-130135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-821546.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 625-259146.
- Neska eskaintzen da umeak, helduak edo nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 642-416503.
- Emakumea eskaintzen da zaintza lanetarako: nagusiak, umeak edo helduak. Tel. 602-347678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 612-493242.
- Emakumea eskaintzen da zaintza lanetarako: nagusiak, umeak edo helduak. Tel. 631-654967.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-655390.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 662-041526.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 631-155993.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-706846.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Asteleheneetik zapatura. Tel. 677-553828.
- Estetizista behar da ileapaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-200700.
- Ileapaintzailea behar da ileapaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-256591.
- Kamareroa behar da Soruluzen jornada osorako. Tel. 943-750030 eta 670-541347.
- Pertsona behar da alzheimerria duen emakumea zaindu eta etxeko lan bat edo beste egiteko. 40 orduko kontratua, asteleheneetik zapatura. Betebeharrak: esperientzia edo kualifikazio ikastaroa eta Eibarren bizieta. Tel. 617-759814.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klaseak ematen dira. Azterketetarako prestaketa: EGA, Osakidetza eta HABEko perfilak... Ume eta helduentzako klaseak. Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Programatu daitekeen Ecotermic salgai. 13 elementurekin. "Color Azul". Tel. 626-144098.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Motxila beltza galdu dut (Milan markakoa). Barruan ikastolako materiala dauka. Tel. 652-761387.

Urtarrilaren 8tik aurrera **MATRIKULA ZABALIK**

17/18
Asteartea

**MAILA GUZTIETAKO
euskararikastaroak**

16 urtetik
gorakoentzat

1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	
A1	A2	B1	B2	C1	C2

- Autokaskuntza: **Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasailoak** (BOGA programa)
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak (**AISA**)
- Azterketa prestakuntza
- **HABEko** titulu ofizialak

ordutegi zabala

TARIFA BEREZIAK:

%20, %50 eta %75eko deskontua

KONTSULTATU

Eibarko Udal Euskaltegia



Bista Eder, 10 -PORTALEA-

euskaltegia@eibar.eus

Tfnoc: 943 70 09 12

Faxa: 943 82 00 89



FISIOTERAPIA


ZENTRUA

Ane Mendia

970 kol. zkia.

Arragueta, 20 - behea

943 530642



ane_mendia@hotmail.com

*indiba terapia / kirol lesioak / masajeak / tendinitisak
bizkarreko minak / esginzeak / etrez-etreko zerbitzua*

Zatoz gure eskaintza berriak probatzera.

Hipopresiboak, k-strecht eta ergonomia

hobetzeko klase pertsonalizatuak.





UNBE



ORBEA



PADELPISTAK



IGERILEKUA



TENISPISTAK



SPA



ZORIONAK!
eta
2018.
URTE
Kirolari
XOM!



Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar

